



- **Enric Larreula**, filologo katalana «Etsenplua eman behar da hainbeste sufritu gabe»
- **Joxe Ulibarrena** 10.700 piezako museo etnografikoa osatu duen eskultorea
- **Juan Karlos Izagirre**, Donostiako alkatea «Jende asko desiatzen dago, baina ez dugu ilegalitaterik egingo»
- **Liburuak** Argiako kazetarion gomendioak
- **Faroak** Dani Blancoren argazkiak eta Koldo Izagirreren hitzak
- **Larrun** Drogen debekua: gezurrak, ezjakintasuna eta interesak

Udako ipuina opari

Il viaggiatore pusillanime, Xabier Mendiguren Elizegi



Gure itsasoa babestea eskatu dute biologoek

Urpeko mundua bizi dadin





Azaleko argazkia:
ENARA MARCOS /
EIBE
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarte. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iarnetika interaktiboa S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaila Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua

GIPUZKOA
zurekin, aurrera ➤



• **NON ZER** •

2011ko uztailaren 31, 2.287. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Miren Azkarate:** «Lifting tratamendurik onena egin dudala aitortu beharko dut». ARITZ GALARRAGA / 4

Asteko gaia

- **Donostia-Miarritze arteko itsas korridore ekologikoa.** Itsasoari bakea emateko garaia. GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 5

Pertsonaia

- **Joxe Ulibarrena:** «Ni ez naiz *modernikola*». REYES ILINTXETA / 10

Gaiak

- Zortzi farola itsasorako. KOLDO IZAGIRRE, DANI BLANCO / 16
- **Gorriti aita-semeak.** Bakoitzak du bere pelikula. ENENKO DORRONSORO / 20

Iritziak

- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENTA / 23
- **Ttakun (h)errenka** Oporrik gabe. UXUE APAOLAZA / 24
- Bolleroon oporrak. KATTALIN MINER / 25
- **Hiruko txikian** Gosetiak. JOXEMARI OSTOLAZA / 25
- Kukutza. IÑAKI BARCENA / 26
- **Txandan** Aro berria, omen. AMATIÑO / 26
- **Zirtak** Estutu eta hertsatuak. JOSE INAZIO BASTERRETXEA / 27
- **Bertso berriak** Uztailako arratsaldeei jarriak. AITOR SARRIEGI GALPARSORO / 28

Erdiko kaiera

- **Liburuak** Abuzturako gure proposamenak. ERREDAKZIOA / 29
- Berri Txarrak: kapitalismoa euskal balioekin. HEDOI ETXARTE / 34
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 36 • **Ezpalak** JON TORNER / 37
- **Ihesi Menorca.** Kalaz kala bizikletaz. AMAIA ETA EDURNE GARTZIA / 38
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 42
- **Zientzia** J. AIZPURUA / 44 • **Landareak** J. ERREKONDO / 45
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 46

Termometroa

- **Juan Karlos Izagirre:** «Ez ditut ulertzen distantzia hartzen duten alkateak». LANDER ARBELAITZ / 47
- **Enric Larreula, filologo katalana:** «Jakin dezatela: gaztelania hitz egiten dutenean min egiten digute». MALORES ETXEBERRIA, ONINTZA IRURETA AZKUNE / 50
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE, XABIER LETONA / 54
- **Net Hurbil** Abuztua izanagatik Fukushima ez dizu opor egingo. PELLO ZUBIRIA / 56

Azkena

- Abiapuntua. KIKE DIEZ DE ULTZURRUN SAGALÁ / 58

OHARRA

Oporrak direla-eta, abuztuan ez da ARGIA kaleratuko. Irailaren 4an itzuliko gara. Ordura arte, izan ondo.



“Lifting tratamendurik onena egin dudala aitortu beharko dut”

Miren Azkarate | Maite zaitut

Ibarretxerekin batera desagertu zen.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Dani Blanco

Kontxo, irribarretsu zatoz. On egin dizute azken bi urteek.

Aspertzeko astirik ez dut izan, baina guztiek esaten didate beste modu bateko aurpegia dudala orain. Lifting tratamendurik onena egin dudala aitortu beharko dut.

Ahaztuta daude dagoeneko Guggenheim edota Balenciaga komisioak?

Ahaztuta ez, baina denborak arrazoi bete eman didan satisfazioa bai, badut. Argi geratu da Guggenheimen ez zela legez kontra jokatu dolarrak erostean. Eta Balenciaga Museoa ateak irekitzen ikusi dugu guk 2007an eta 2008an hartutako neurriei jarraituz.

Ahaztuta dagoen bat, Praileaitz.

Hori bai izan dela aldaketa nabarmena! 500 metroko babes eskatzen zutenak, hamabost metro gehiagokoa arautuaz dekretu berrian!

Eta ahaztuta baino eskertuta, seguru, Kepa Junkera.

Ahaztuta inola ere ez, hortxe daudelako hiru CD eder askoak nahi beste bider entzuteko. Aurkeztutako egitasmoa ondo asko bete hor ere.

Udako top kanta bat duen lehen politikaria izango zara.

Arrakasta izan zuena, gainera. Eskertzekoa da merezimendu guztia niri bakarrik ematea. Nahiago nukeen benetan 700.000 euro izan banitu egitasmo jakin bat babesteko!

Sentitzen dut diruaren zatirik handiena jarri eta kantarik eta osperik gabe geratu denarengatik.

Esker txarreko langintza, politikariarena...

Ez, ez da esker txarrekoa. Kritiken ondoan laudorioak ere izaten dira, kalean hurbiltzen zaizun jendea... Eta, batez ere, zeure kontzientziarekin lasai egotea izaten da konpentsaziorik onena.

Oraingoek ere gaizki egiten dutela esango didazu orain.

Oraingoek ere gauza batzuk ondo egingo dituzte eta beste batzuk ez. Kontua da zeri erreparatu nahi zaion. Eta horretan kazetariok ohikoa duzue arazoak non egon ziren oroitaraztea. Oso bakanka ikusten zaituztet ongi egindako lanak nabarmentzen.

Kasu, oraingoek ekarriko digute bakea.

Bakea guztion artean ekarri beharko dugu. Baita normalizazioa ere. Azken hauteskundeetako emaitzei begiratu baino ez dago. Gizartearen zati bati politikarako ateak itxita nekez lortuko ditugu biak.

Lehen lerroa utzi ondorenean esaten dira horrelakoak.

Donostiako Udalean zinegotzia naiz. Nahi den lerroan, baina herri honek jende asko beharko du, guztiok beharko gaitu, modu batean edo bestean “politikagintzan” hurrengo urteetan. ■

Donostia-Miarritze arteko itsas korridore ekologikoa

Itsasoari bakea emateko garaia

Gure kostaldea Atlantikoko itsasertzeko eremurik oparoena dela diote zientzialariek; bioaniztasunik aberatsena duena, eta halaber, mehatxatuena dela. Gure uretan gordetzen den bizitza ezagutarazteko eta legez hartu beharreko neurriak hartzera bultzatzeko, gure itsasaldeari batasun biologiko-geologiko-juridikoa aitortuko liokeen figura osatzea proposatu dute Oceana nazioarteko erakundeak eta hemengo biologoek.

GARBINE UBEDA GOIKOETXEA


ITSASOARI ESTUKI LOTUTA bizi den herria garela esan izan da beti; gure ekonomian, gure bizimoduan, gure kulturen, garrantzi handiko elementua dela itsasoa. Azken

hamarkadetan, ordea, hari bizkarra emanda bizi garela dirudi, haren izateari naturalki begiratzeari utzita, gure mundu biziaren zati izango ez balitz bezala.




ENARA MARCOS / EIBE

Oceanak eta biologoen elkargoak osatutako proposamenari zetazoen gaineko ekarpena egin zion Euskal Izurde eta Baleazaleen Elkartek (EIBE). 17 espezie ezberdin identifikatu dituzte gure kostaldean. 17 horietatik nagusiki bost bizi dira bertan: Izurde Handia, Izurde Arrunta, Izurde Marraduna, Izurde Pilotua eta Zifioa. Argazkian: Izurde Marradunak.



ENARA MARCOS / EIBE



FÉLIX AGUADO / OCEANA

Jaizkibel-Ulia Natura 2000 Sarean sartzeak eta Donostia eta Miarritze artekoa itsas korridore ekologiko izendatzeak 113 habitat ezberdin eta 1.000 espezie inguru ipiniko lituzke babespean. Horietatik 50 inguru legez babestu beharrekoen zerrendan ageri dira. Goiko argazkian, itsas izar mota bat (*Asterina gibbosa*). Erdikoan, katxalotearen isatsa. Behean, nudibrankioa (*Hypselodoris tricolor*) eta bere arrautzak alga gorrietan, Porrustarrin, Jaizkibel.

Bertatik ateratako mozkinetatik bizi den arrantzalea edota ikerketa espezifikoa aritzen den zientzialaria albo batera utzita, gainerakoon ez-ezagutza, gainerakoon urruntzea, alimalekoa da. Eta ezjakintasuna arduragabea da. Ezjakintasunak etena dakar, eta gutxiespena, eta murru ikusezina eraikitzen ditu, harresi lodikote sendoak, interferentzia deserosoei aurre egin behar ez izateko.

Nola ulertu, bestela, Pasaiaiko herria hain ospetsu egin duten asmo suntsitzaileak. Kasura, duela hamar bat urteko aurre-proiektua, Jaizkibel mendia zulatu eta haren tripetan super portua eraikitzea proposatzen zuena, baina bertatik aterako zen harriak betelanerako balioko ez zuelako, bertan behera utzi zena.

Nola ulertu, bestela, Jaizkibel mendiari eman zaion babesaren itsas mailatik gorakoa izatea eta urpean gelditzen dena aintzat ez hartzea, mendia, eremu lurtarrak eta itsastarrak dituen arren, bat eta bera denean.

Nola ulertu, bestela, Pirritxek eta Porrotxek Donostiako badian bizi izan zen izurde Pakitori eskainitako abestia, ezagutza faltagatik ez bada; izurdeek (zetazeoek) gure uretan populazio egonkorak dituztela eta bertakoak direla ez dakigulako ez bada. Hala dio: *Udaberriarekin bat, bat-batean izan zen, urrutitik Euskal Herrira igeri etorri zinen, gurekin gelditzeko, gurekin betirako...*

Ezagutza falta zabaldu horri egotzi izan zaio, halaber, babes legetan dagoen hutsunea, agintariak neurriak hartzera behartzeko presio ahula, Natura 2000 Sareak, itsasoan oro har eta Kantaurikoan zehazki, erakusten duen gabezia.

Hogei urte eta gero

Ingurumen kontserbaziorako araudi europarrak –Habitat Zuzentaraua deiturikoak– hogei urte beteko ditu aurten. Europar Batasuneko kide diren estatuak neurri eraginkorak hartzera behartzen dituen legedi honek eta beronen politika aplikatzeko sortutako tresnak –Natura 2000 Sareak– berritasun garrantzitsua ekarri zuten sortzez: zehaztapena. Horren arabera, hutsala da naturaren kontserbazioaz besterik gabe jardutea. Harez geroztik, estatu bakoitzak zehazki zein habitat (pagadia, ibaia, lautada, arrezifea...) eta zein espezie (zein alga mota, zein zetazeo, ugaztun edota zuhaitz) kontserbatu nahi dituen finkatu beharra dauka. Bestalde, azterketa periodikoak egitera behartzen du, eta ondorioz, ez da nahikoa halako zetazeo mota babesten dela esatea. Espezie horretako populazioak izan dituen gorabeherak edota bere habitataren egoera zertan den azaldu beharko du legeari jarraiki.

Iñaki Azkarate

«Betebehar legalek 20 urte beteko dituzten arren, oraindik ez da itsas eremurik babestu»

Euskadiko Biologoien Elkargo Ofizialeko (EBEO) kidea da Iñaki Azkarate. Baionan aurkitu genuen, Donostiatik Miarritzera arteko korridore ekologikoaren aldeko proposamena besapean.

Nondik dator Biologoien Elkargoaren eta Oceanaren arteko elkarlana?

Lehen kontaktuak 2009an hasi ziren. Itsasoan dugun babes hutsu-nea dela eta, nazioarteko eragile baten laguntza behar genuela ikusten genuen EBEO-n, estatu mugez harago, Europar Batasuna eta Natura 2000 Sarea baitira gure testuingurua. Zentzu horretan, itsas kontserbazioan izen ona eta baliabideak dituen nazioarteko erakundea da Oceana, eta Madrilgo Gobernuak finantzatuta, Kantauriko itsasertza Bidasoaraino aztertuta du.

Gure betebehar etikoa gauzak mahai gainean jartzea da, Jaizkibelen zein habitat eta zein espezie dauden esatea. Erabakia beste batzuen esku dago.

Itsas korridore izendatzeak, babesa emateak, zer esan nahi du?

Natura 2000ren baitan denetik dago. Badira basabizitzaren eredu diren eremuak eta badira jarduera ekonomiko jasagarriagoa ametzten dutenak, Jaizkibel mendia kasu. 2.000 hektareatik gora daude Sarean, baina egurra ustiatzen da eta turismoa ere sartzen da, golf zelaia dago...



Guk itsasoan proposatzen duguna ez da erabateko debekua; hori, gainera, administrazioak esan beharko du, esatekotan. Guretzat, petrolio-portua eta itsas erreserba bateraezinak dira. Aldiz, artisau arrantzak ez luke ezer eragotziko.

Zein da protokoloa?

Maila administratibo ezberdinak daude. Bruselara jo dugu lehenik, zeren Natura 2000 Sareko eremuen kudeaketa estatuei dagokie, baina onarpena eta gainbegiratzea Bruselak egiten du, Habitat Zuzentarauaren bidez. Parisera ere jo dugu. Itsas korridoreak bi estatuen arteko harremanak lantzea eskatzen duelako. Eta Madrilan ere izan gara. Printzipioz konpetentziak estatuenak direlako. Kon-

petentziak autonomietara heltzen dira, baina proposamenak estatuek egiten dituzte eta gainera, itsasoari dagokiona ere Madrilan esku dago.

Gipuzkoako Foru Aldundira ere jo dugu, Batzar Nagusietara.... Esparru administratibo guztietan eta mahai guztietan jarri dugu proposamena.

Zein da epea?

2012an Europako Natura 2000 Sareak osatuta behar du, bai lurrian eta bai itsasoan. Nahi genuke urtebeteko epe horretan Jaizkibel-Uliako itsas erreserba kontuan hartzea. Korridorea gero helduko da.

Jaizkibel Atlantikoko itsasertze-ko eremu aberatsena da biologikoki, eta baita mehatxatuena ere. Geologikoki ere aztertu da, eta horren arabera, Deba, Zumaia, Mutriku eta Getariako geoparkaraino ere luzatu egin beharko litza-tekeela uste dugu, eta Lapurdiko flisharekin bat egin beharko lukeela, geologikoki ere unitatea delako.

Betebehar legalek 20 urte beteko dituzten arren, administrazioek ez dute itsas eremurik proposatu oraindik. Eta horretarako gaude gu, gogorazteko.

eco festes
Jaietarako bitarteko ekologikoak!

Euskal Herria

93 837 15 48
www.ecofestes.com

ECO-30 ECO-50 ECO-60 ECO-100

Enara Marcos

«Itsasoaren egoera oso larria da, baina babesten denean, segituan biziberritzen da»

Biologoa. Euskal Izurde eta Baleazaleen Elkarteko kidea. Zetazeoak ikertzen ditu, eta bereziki, Izurde Handiak. Laster, hauengan oinarritutako tesiaz harrituko gaitu.

Zergatik dira zetazeoak horren garrantzitsuak?

Egitura trofikoaren goialdean daudelako. Harrapari naturalak dira. Sistema orekatuan harrapakinak eta harrapariak behar dira.

Bestalde, zetazeoak bioindikatzailerak dira, ekosistemaren egoera eta osasuna zein den erakusten dute. Zetazeoak baldin badaude, jakia dagoen seinale. Eta hauek pairatzen dituzten gaixotasunak ikusita, badakigu kate trofiko osoan, maila biologiko ezberdinetan, zein gaixotasun dauden eta nolakoak diren: birikoak, kutsadurak sortuak, mikrobiologikoak...

Zenbat espezie identifikatu dituzue?

Gure kostaldean, 17. Munduan 84 direla kontuan hartuta, asko dira. Horietatik 5 bertan bizi dira: Izurde Handia, Izurde Arrunta, Izurde Marraduna, Potzuak edo Izurde Pilotuak eta Zifioak. Azken hauek oso animalia arraroak dira, eta ankerrak. Oso animalia bereziak ikusi ditugu hemen.

Izurde Handia, zure tesian ikertu duzuna, legez babestu beharra dago.

Bai. Espezie mehatxatuen zerrendan dago eta hemen oso populazio garrantzitsua daukagu. Argi dago aberastasun handia dugula hemen, baina oso oreka hauskorrean, eta neurriak hartzeko momentua da. Ez da, gainera, aparteko neurririk ere eskatzen. Itsasoaren egoera larria da, eta hala ere, esperantza ematen du, babesten denean segituan biziberritzen delako. Baina Arrantza politikarekin egiten dugu beti topo, ustiaketa politikekin, azpiegitura politikekin... Ez uste, dena den, aparteko neurriak beharko liratekeenik ere.



G.U.G.

Itsas korridoreko txosten zientifikoetan parte hartu duzu. Zer on ekarriko luke itsas korridoreak?

Itsas korridoreen funtsa eremu naturalak lotzea da, prozesu biologikoak bata bestearekin elkartuta daudelako, ez daudelako isolatuta. Hori lurrean hala bada, pentsa itsasoan, eremuak askoz zabalagoak direnean, ez direnean horren mugatzaileak. Zetazeoek mugikortasun handia dute, eta bazter batean babesten baditugu ondo, baina eremu horretatik ateratzean zer?

Korridore ekologikoak, mugikortasun eskasa dutenenei ez ezik, mugikortasun handia duten organismoei ere baldintza egokiak eskaintzen dizkie. Onura bizidun eta ekosistema guztientzat da.

Lapurdiko kostaldean badira eremu babestuak, Gipuzkoan eta Bizkaian ordea, solteren bat besterik ez. Antzematen al da desberdintasuna itsasotik begiratuta?

Babesa berri-berria da Lapurdin, eta, tira, babesa bezain inportantea da gero heltzen den kudeaketa. Gestio planaren arabera hasten dira neurriak hartzen eta han ere ez dira lanean hasi oraindik. Ekosistemetan epe luzera ikusten dira onurak. Zaintza, garbiketa, kon-

trola, hori dena gestio planetan zehazten da.


Bizipen gogoangarriren bat kontatuko zeniguke?

Gauza asko eta harrigarriak gertatu zaizkit itsasoan. Zer lan polita zuena, esaten digute, zer animalia ederra izurdea, zer irribarrea... Nik beti esan ohi dut izurdea idealizatu dugula, baina izurdea, nik ikertzen dudana Izurde Handia, animalia basatia da, harraparia, eta borroka egin behar badu egin egiten du, bere espeziekoekin, beste espeziekoekin edo behar denarekin. Baina egia da xarma berezia dutela. Gugandik oso hurbil sentitzen ditugu, beren egitura sozialagatik. Gu egunero harritzen gaituzte, espontaneoak dira, oso sozialak, azkarrak... Beren inteligentzia emozionala da bereziki polita, elkarrekin nola bizi diren, nola babesten duten elkar, beste espezieekin erlazionatzeko duten erraztasuna...

Behin, itsasontzi batean haur mordo batekin gindoazela, Izurde Pilotuak agertu zitzaizkigun, familia estruktura oso itxia dute. Poliki-poliki, area horretan ziren guztiak hurbildu zitzaizkigun, ehunka ziren, inguratu egin gintuzten, ordubete eman zuten gure ondoran. Gure ustez, eta inguruan orkak zebiltzala jakinda, gu babestera heldu ziren.

Istoria tristeak ere ikusi ditugu. Behin itsasontzi batek katxalote bat jo zuen. Bost bat ordu eman zituen agonian, odola arnasten zuela, izugarria izan zen hura.

Eta balea bat ere ikusi genuen ziztu bizian pasatzen, hamabost izurde ondoan saltoka zituela, erotuta, pozik... Espezie nahastuak elkarrekin jolasean... Oso gauza ederrak.



Gaur egun, Europar Batasunak itsas azaleraren %1,5 besterik ez du babespean. Dibertsitate Biologikorako Nazio Batuen Hitzarmenak 2012rako %10era heltzea eskatu zuen, baina epea 2020ra luzatu da, munduko administrazioen betebeharrak arrunt atzeratuta daudelako.

Jaizkibel eta Uliako eremua babestuko balitz (laranjaz), 27.000 hektareako (35 kilometro luze) babesgunea eratuko litzateke Donostia eta Miarritze artean. Eta itsas korridore ekologiko izendatuko balitz, eremu osoaren kudeaketa bateratua erraztuko litzateke.

Urte guztietako jardueratik nabarmendu daitekeen ondorio esanguratsuenetako bat, konparaketaz gabeziak are ikusgarriago egiten dituen, 27 estatuen erritmo ezberdintasuna da. Batzuek, Frantzia, Herbehereak, Austria edota Alemania kasu, politika zorrotzagoak aplikatzen dituzte. Erritmo ezberdin horixe bera ageri da, halaber, lurrean eta itsasoan. Natura 2000 Sarea osatzen duten 25.000 inguru natura-guneetatik gehientsuenak, diferentziaz, lurrean aurkitzen dira.

Adibide bat. Itsaso Baltikotik guregana beherantz egiten badugu, eta Atlantikoa nahiz Kantauri itsasoan diren itsas babesguneak marraz lotzen baditugu, aski harrigarri egiten da Normandiatik, Britainiatik, Akitaniatik Lapurdiraino heltzen den jarraipen hori Bidasoa parean bortizki eteten dela ikustea.

Horretara heldu zen, hain justu, Oceanak (itsas kontserbazioan diharduen nazioarteko erakundea) eta Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialak Jaizkibel-Uliako itsas zonaldea babesteko eta bidenabar, Donostia-Miarritze arteko itsas korridore ekologikoa proposatzeko egindako ikerketa, estreinakoz 2010ko udaberrian Donostiako Akuariumean aurkeztu zena; Atlantikoko itsasbazter osoa kontuan hartuta, Jaizkibel-Uliakoa bioaniztasunik handiena duen gunea dela frogatzen duena; bere baitan, Europako araudiaren arabera nahitaez babestu beharreko espezie ugari (50etik gora) biltzen dituen.

Bukatu dira, beraz, aitzakiak. Bukatu da ezjakintasunaren izenean ezikusiarrena egi-

tea. Jakintza eta frogak txostenotan daude. Oceanak eta biologoen elkargoak osatutako lan honetan, eta baita, diru publiko finantzatuak izan diren arren, administrazioek publiko egiten ez dituzten beste hainbat txosten zientifikotan ere. Kasura, Euskal Izurde eta Baleazaleen Elkarteak burututakoak.

Urtebeteko epea dago galdutako denbora berreskuratzeko. 2012an osatuko da behin-behingo, Natura 2000 Sareak konektatu nahi dituen eremu lurtar eta itsastarren zerrenda. Itsas korridore ekologikoaren aldeko proposamena afera honetan zerikusia luketen administrazio guztietara heldu da. Ingurumenaren aldeko elkarteek ere (CADE Ipar Euskal Herriko taldeak biltzen dituen elkargoa kasu), lanari ekin diote. Erantzukizuna politikarien esku dago. ■

Datu Pertsonalen Babesa - LOPD

Legedira egokitzeko prozesua
(euskaraz, pertsonalizatua)



943 453 588 · www.sigacus.com

Joxe Ulibarrena

«Ni ez naiz *modernikola*»

Jende xumearen jakintza, mendeetan zehar garatutako ezagupenak, hainbat lanbidetarako asmatutako tresna eta gailuak, auzolana eta auzolaguntasuna, euskaroen izaera propioa, hori dena da Azkoiengo eskultore ausart eta askatasunzaleak aldarrikatzen duena egungo gizarte modernikolaren aurrean.

REYES ILINTXETA

Argazkiak: Dani Blanco

NAFARROAKO OLLO ibarreko Arteta herrian Joxe Ulibarrena Arellano eskultoreak sortutako Museo Etnografikoa dago. XVII. mendeko Fantikorena etxean 10.700 pieza baino gehiago aurkituko ditugu “entziklopedia enpiriko” honetan, sortzailearen hitzetan. Historiaurretik eta XX. mendearen hasierara arteko bizi puskak. Haietaz eta gure arbaso euskaroen historiaz mintzo da pasioz Ulibarrena. Hitz, esamolde eta leku izenen atzetik zer dagoen, bere modura arakatzea maite du. Hitzegiaren zurruntasuna ez da berarentzat arazo. Kontzeptu zehatzentzat eleak sortzen ditu, barne-tik, borborka, bere eskulturak bezala.

Autoarekin batera presak eta erlojua apartatuta uztea komeni da. Ezohiko jakintza gune batean murgilduko gara. Ez dugu diseinuzko panelik ikusiko, ohartxo asko eta asko paper muturretan eskuz idatzirik bai ordea. Zorabio sentsazioa izanen dugu, tarteka, hainbeste gauza ikusita: goldeak, sarriak, jantziak, altzariak, laiak, gurdiak, hilarriak, zepoak, txanponak, mota guztietako lanabesak, liburuak, jostailuak... eta Ulibarrena jenio urte-tsua hamaika azalpen emanen digu gai bate-tik bestera jauzika, eten gabe. Inor epel utziko ez duen esperientzia, zalantzarik gabe.

10.700 pieza baino gehiago museo honetan. Zergatik biltzen dituzu?

Gure arbasoek jakintza zuten ala ez jakiteko. Batzuek esaten dute atzeratuak zeudela, baina nik ez dut halakorik ikusten. Mahai hau, adibidez: gaur egun ezingo litzateke halakorik

egin, hasteko hain zuhaitz handirik, jada, ez delako aurkitzen. Mahai gaineko taula honek 89 zentimetroko zabalera du. Egurra nola

Nortasun agiria

Joxe Ulibarrena Arellano Azkoien herrian (Nafarroa) jaio zen 1924ko urtarrilaren 25ean. Iruñeko Arte eta Lanbideen eskolan ikasi ondoren Valladoliden hiru urte izan zen tailugile ezagunen tailerretan. Handik Parisera joan zen beka bati esker. Han lau urte eman eta gero Venezuelara abiatu zen hemengo giro itogarritik aldentuz. Caracaseko Euskal Etxean aritu zen kultur eragile. Zazpi urte geroago, 1959an, itzuli eta abian jarri zuen Nafarroako Pedro Mariskalaren Fundazioa bere hiru seme-alaba nagusiekin. 1964an lehen museo etnografikoa zabaldu zuten Berriobeitin. Ondoren bigarren emaztearekin hainbat urtez Alacant aldean bizi izan zen antigoaleko gauzen salmentan, dekorazio lanak eta eskulturak egiten. Iruñera itzuli ziren adinez oso aurreratua zegoen Joxeren ama zaintzera. Orain dela 25 urte Artetara eraman zuten museo etnografikoa eta gaur egun eskulturak egiten, ikerketa etnologikoak garatzen eta museoan lanean dihardu. Felix Urabayen, Aita Adoingo Esteban, Vianako Printzea, Raimundo Lanas jota kantaria, pilotaria, laialaria eta Getzeko Noingo Batailaren oroigarria, dira bere eskultura ezagunetarikoz batzuk. Horretaz gain hamar bat liburu baino gehiago eman ditu argitara.





25 urte egin ditu Artetan museoak. Hori dela-eta aurten jarduera bereziak ari dira antolatzen, joko eta jostailuen inguruan, besteak beste. Nafarroako Museoen Lege berriak hau bezalako museo txiki aunitz batere diru-laguntzarik gabe utzi ditu berriki. Bere gain hartu ditu gastuak Fundazioak. Bertan, Ulibarrenaren hiru seme-alaba gazteak aritzen dira boluntario, Elur bereziki, historia eta ondarearen kontserbazio gaietan aditua.

lantzen den ere oso garrantzitsua da: ilargiak, eguzkiak, uda edo negua den... eragina dute. Denak du garrantzia eta jakinduria horren emaitza ikaragarria da. Eta nik galdetzen dut: zer da gure *abendizkia*? Gure etnia? Gauza asko dugu ikasteko. Baskoak esaten dutenean, adibidez, zer esan nahi dute horrekin? Batzuen iritzien arabera ni ere ez naiz baskoa, Nafarroako Erriberakoa naizelako. Eta han abizen gehienak euskaroak dira. Nik haiei galdetzen diet ea zein den beren abizena, zein den haien amaren izena. Beste ama bat eduki nahi badute aurrera, baina hau da dagoena. Dena den ni ez naiz baskoa, ni euskaroa naiz.



Zein da desberdintasuna?

Baskoak Espainiako erregearen inguruan daude, garai batean Francoren inguruan egon ziren bezala. Ibarra, Sota eta Aznar bilbotarrak, esate baterako. Gaur egun boterearen inguruan jarraitzen dute eta euskaroak, aldiz, kartzelan edo gertu daude. Vasco, vasconum, Vasconia... hori dena latinoa da. Euskaroa, euskaria, euskara... ez.

Behin Yolanda Barcinari galdetu nion ea ba ote zekien zer esan nahi zuen bere abizenak. Eta esan nion: *Bar* eta *tzina*: gau txikia. Eta hori bezala, zenbat eta zenbat izen dagoen euskal jatorrikoal Mediterraneo aldean Gandia, Xabia, Extremaduran Azuaga, Cádiz en Arazena mendi zerra... Andaluzia esaten dugunean, zer esaten ari gara hitz honekin?: Ibar handi eta luzea.

Eta Nabarra. Behin Corellakoari [Miguel Sanz] esan nion: “Ez esan nik euskaldunen gauzeekin zaletasun handia dudala, zuk ere euskal jatorria duzulako. Horren nafarra izanik, zuk badakizu zer esan nahi duen *Nabarra* hitzak? Zuk ez dakizu ezta hori euskara denik ere. *Naba* hitzetik dator eta eremu lau eta zabala esan nahi du. Eta zure amaren izena ere ez dakizu zein den. Zu zara zure amaren semea, besterik ez, baina beste ama bat eduki nahi baduzu hori beste kontu bat da”. Eta beste gauza garrantzitsu bat esan



nion, zenbat jende hil zuten haiek gerra garaian: “Zure herrian 93”. Berak erantzun zidan ea nola pentsatzen dudan halako gauzetan, baina nola ez ba! Nik 11 urte nituen nire aita gure etxean hil zutenean eta Iruñeko Gaztelu Giblean hiru gazte –bi mutil eta neska bat– nola fusilatu zituzten ikusi nuen. Besarkaturik erori ziren lurrera. Hori ezjakin hutsak direnek besterik ez dute egiten. Zer egiten duten ez dakitenek. Eta orduan Sanzek esan zidan “Beno, beno, ikusten da zu poeta bat zarela”, eta nik, “izan daiteke, eta ikusten duzu ere, zenbat poeta hil duzuen?”.

Isilarazteko edo?

Ezjakintasun hutsarengatik, ez isilarazteagatik, horrek ez badu hitz egiten beste batek eginen duelako. Nik hori ikusi eta bizi izan dut, bestela nola jakin behar nuen? Eskarmentuak erakutsia. Eta gauza bera gertatzen zait lanbidearekin. Batzuek esaten didate ez naizela modernoak. Nola nahi duzu modernoak izatea nire adinarekin? Esaten diet txantxetan. Dena den, nik uste dut oraingo garaian egiten diren gauzak direla modernoak, besterik ez. Ni ez naizena da *modernikola*. Naizena izaten segitu nahi dut, maisu handiek zer egin duten ikusten eta ikasten jarraitu nahi dut.

Zer da *modernikola*?

Abstraktua badakizu zer den? Azaldu ezin daitekeena eta hori da haiek egiten dutena, besterik ez dakitelako. Etxe honek, adibidez, 300 urte baino gehiago ditu, zortzi zutabe ditu

AQUARIUM

Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1
20003 Donostia (Gipuzkoa)

Tel: 943 44 00 99

aquariumss@aquariumss.com
www.aquariumss.com

AZKEN HITZA

Chillidaleku, Oteiza, Ibarrola

"Chillidalekun izan nintzen behin gonbidatu nindutenean, eta sarreran gazte batzuk kexaka ari ziren ez zietelako sartzen uzten. Protestan ari ziren museoa egiteko mendi hartan dauden hiru baserrietara zihoazen bideak moztu zituztelako. Hori ez dago ongi!

Nik asko ezagutu nuen Oteiza. Berribeiteko etxean egon zen askotan. 'Zer interes itxia duzun eskulturarako' esaten zidan. Eta nik erantzuten nion: 'Begira Jorge. Nik estimu handian zaitut, baina zuk badakizu zer den eskultura? Jakinen bazenu, egiten duzuna ez zenuke eginen. Klarionekin egiten duzuna, adibidez. Hori ez da eskultura, hori burutazio bat baino ez da. Hori bururatzen zaio beste ezer bururatzen ez zaion norbaiti. Malabarismoa, zirkoan bezala'.

Beste behin Agustin Ibarrolak idatzi zidan Bartzelonako kartzelatik eta bisitan ikustera joan nintzen. Galdetu zidatenean zertaz ezagutzen nuen nik Ibarrola esan nien margotzetik eta eskultura egitetik ezagutzen nuela. Gela batean sartu eta han hiru egun eduki ninduten. Laugarrenean joateko esan zidaten eta hori egin nuen. Azkenean Ibarrola ez nuen ikusi. Orain ez dut Ibarrola horrenbeste estimatzen, egun beste ofizio bat duelako. Jakin nuenean zuhaitzak margotu zituela esan nion: 'Noizbait ikusi al duzu zuk ama jakintsuago bat, natura baino? Hor dena ongi badago zergatik ari zara zu zuhaitzak margotzen?'. Hori da inoiz ikusi dudana zozokeriarik handiena! Baina nori bururatzen zaio hori egitea, ba zertan ari den ez dakien bati. Moztu dizkizutela zuhaitzak? Pena ematen dit zuhaitzengatik".

behetik goraino eta ez du hormarik. Kubistek gauza bera egiten zuten, baina oraingo arkitekto *modernikolek* esaten dute kubismoa XX. mendearen hasierako kontua zela.

Nola definitzen duzu zeure burua?

Oso erraza da. Eskultorea eta besterik ez. Nik zaletasun handia dut, eta beti umilki eta zutik jarraitu nahi dut horrekin.

Zergatik egiten dituzu eskulturak?

Interes handia daukadalako zerbait adierazteko, erritmo eta proportzio zehatz batzuekin. Egiaztan plastikoa den zerbaiten bidez. Espresioa duten perfil batzuk egin nahi ditut.

Zertan ari zara orain lanean?

Orain Sarasateren irudia egiten ari naiz harizkiz. Entusiasmo handia dut, Sarasate biziki arraroa zelako. Iruñera etorri zen behin batean, autoritateak bere bila joan ziren tren geltokira zaldi gurdiaekin eta guzti, baina berak esan zien oinez joan zela harrera egi-

"Sarasateren irudia egiten ari naiz harizkiz. Biziki arraroa zen. Autoritateak bere bila zaldi gurdiaekin joan eta esan zien oinez joan zela. Zer modu dotorea autoritateei ezetz esateko!"

tera joana zen jende guztiarekin. Zer modu dotore eta dinamikoa autoritateei ezetz esateko! Eskerrik asko, baina ez. Horrez gain prest daukat Tafallako ikastolarako eskultura baten

bozetoa eta Gerra Zibilaren inguruko oroitzapen eta gogoe-tak ere idazten ari naiz.

Tafallako ikastolak aurtan antolatzen duen Nafarroa Oinezarako hiru eskultura egin dituzu eta Artea Oinez 11k omenaldia eginen dizu urrian. Pozik?

Oso ongi iruditzen zait Oinezaren inguruan egiten dena, baina ni beste bat gehiago naiz

ekimen honetan, besterik ez. Denei egin beharko zieten. Zer garen, nolakoak garen ulertzeko gakoa gure arbasoek egin zutena ezagutzean datza. Gaurko haur eta gazteek jakin-mina izan dezaten nahi dut. Arreta jar dezatela halako gauzetan eta ikas dezatela zer egin duten gure arbasoek.

Museoaren izena Iruñeko Erresumako Museo Etnografikoa da eta hau dena sustatzen duen erakundea, Nafarroako Pedro Mariskalaren Fundazioa. Zergatik?

Nabarrako Pedro, Nafarroako erreinuaren mariskala izan zena konkistan, gaztelar armadaaren aurkako borrokan. Nafarroako mariskala preso hartu 1518an eta Simancasera eramane zuten. Han lau urte eduki zuten inor ikusi gabe eta apenas jan gabe hilik agertu zen arte. Carlos V.a kanpotarraren alde zin egin zezala nahi zuten baina berak ez zuen amore eman. Bere garaikoei erakutsi zien guztiagatik oso estimu handian dugu. Berak erakutsi zuen

Negar malkotan

"Hau ez da turismorako museoa, jakin nahi dutenentzat tokia baizik. Atzo Andoaingo bikote bat etorri zen eta negar malkotan, hunkiturik joan ziren. Tresna bakoitza lan zehatz baterako egina dagoela ikusten da eta hemen saiatu gara ibilbide bat egiten, ez bakarrik piezak ekarri eta kitto. Teknologia plastiko traiektoriala da guk darabilgun kontzeptua. Nik gure arbasoek zeukaten jakintza hori nahi dut erakutsi".



barneko indar hori, sinesmenak ematen duena, oso garrantzitsua da. Kanpoko energia asko izaten dugu, baina ez barrukoa.

Aldarte eta ziur egote hori bera erakutsi zuen nire ama zenak soldadu joateko deitu zidatenean. Burgosera joan nintzen. Ama nirekin etorri zen eta esan zien nik ez nuela egingen zerbitzua Pariserara ikastera joan behar nuelako Diputazioko beka batekin. Militarrek esan zuen beste guztia baino lehenago zela aberria eta amak erantzun zion ni bere semea nintzela eta inork ez zuela indarrik kontrakoa esateko. Militarrek ez zuen ezer egin. Esan zuen poztan zela gu ezagutu izanaz eta ongi ibiltzeko.

Euskara Venezuelan ikasi zenuen.

Han hasi nintzen Jose Estornes Lasarekin. Behin esan zidan: “Zuk horrenbesteko zale-tasuna duzunez gauza euskerikoen gainean, zergatik ez duzu euskara ikasten?”, “maisurik ez dudalako” erantzun nion nik. “Zuk ez didazu niri erakutsi nahi?”, “bai, ados” esan zidan eta horrela hasi ginen. Egutero elkartzen ginen ikasgaia egiteko. Ez dakit euskara gehiegi baina gauza batzuk ikusten ditut oso garbi. Gure arbasoek bazituzten esamolde batzuk egun galdu beharko ez genituzkeenak. Adibidez orain asko erabiltzen da “kultura” eta guk badugu beste hitz bat: “jakintza”.

Euskaraz norbait hiltzen denean “heriotza” eta “hilotza” hitzak erabiltzen dira. Hoztu da pertsona. Hil da. Baina hori dena ikasteko arretaz entzun behar duzu zer gauza interesgarriak esaten dituzten gure baserriarrek. Zeinen esamolde biziak, adierazkor eta zehatzak! ■



Dive Tarpoon urpekaritza





Kirol portua, A7 lokala
48992 GETXO (Bizkaia)
Tel / Faxa: 94 4912577
divetarpoon@euskalnet.net
www.divetarpoon.com



Zortzi farola itsasorako

Argazkiak: **DANI BLANCO**

Testua: **KOLDO IZAGIRRE**



itzartu nintzen
ezin izan nuen
eguraldia leihotik ikusi

jantzi nintzen
ezin izan nuen
lanerakoan atea giltzatu

ez zegoen leihorik
ez zegoen aterik
etxea joana zen
gero arte esan gabe
eta kazetek haren berririk ez

etxea alde egina zen
ni lehorrean utzirik
farola zurtua
poliglota bakartia

zeren zain daude arrainak
metal gorriko zokoan?
arrantzaleak noiz alde egingo
daude zain beti arrainak
ontzi zaharraren ondoan

zeren zain daude arrainak
azpiko ur arrotzean?
arrantzaleak noiz etorriko
daude zain beti arrainak
ontzi berrien gosean

zeren zain daude arrainak
ilunpearen hondoan?
farolak oker noiz argituko
daude zain beti arrainak
urteko barauondoan

Ziburuko farolak argia luze
argia luze baina luzeago iluna

gauerdi batean
heldu da
enbata batean
sua dakar
hegal beltzeko aingeruak
Jainkoa sortu du

gizonak itsasoan
eta Lancre Lapurdin
emazteak biluzik
eta Lancre Lapurdin

hitza dakar zuri
heldu da
lotsa dakar lizun
dena daki
hegal beltzeko deabruak
Jainkoa sutu du

Ziburuko farolak argia luze
argia luze baina luzeago iluna



Ezkerreko orrian, goian, Miarritzeko
farola; behean, Ziburukoa. Orrialde
honetan, Lekeitiokoa.





bokaletik zabalera
uhinetan zabuka
tabernatik irteten den
marinela bezala

good bye farewell!
pilotuak deiadarra
non ote du burua
ez noski baforean
good bye farewell!
farolaren dardara

bokaletik zabalera
uhinetan zabuka
ohatzetik hastantzen den
maitalea bezala

Goian, Matxitxako. Behean, ezker-eskuin, Igeldo (Donostia) eta Hondarribia. Eskuineko orrian, goitik behera: Sokoa eta Pasaia.





bihar joko dugu Saint-Malo
hego haizean emaro
Jeanette! Jeanette!
ohea bete marmalo!


bihar joko dugu Erroxela
zer eguraldi goibela
Anita! Anita!
libre daukazu logela?

bihar joko dugu Bordele
bi berdel eta bost bele
Brigitte! Brigitte!
arinoa, mindua badere!

bihar joko dugu Pasaia
labar gainean gabaia
Carmina! Carmina!
Grand Solen duzu anaia

bihar joko dugu Lekeitio
patroiak hala ei dio
Maritxu! Maritxu!
ezer kendu ez leikio

bihar joko dugu Matzaku
leku gozoa ez zaku
Ama...! Ama...!
Matzaku jota argiak balaku ■



• Gorriti aita-semeak •

Bakoitzak du bere pelikula

Familia. Tradizioaren harria. Mando bat. Eta apustua tarteko. Astuna, iraganean iltzatutako oraina. Hala da Alberto J. Gorritiberea zuzendariaren Arriya filma, errealitate baten irakurketa pertsonala. Uztarria aprobetxatu dugu guk. Aita eta semea, tradizioa eta etorkizuna plaza berera ekarriz. Eta Joxe Mari Gorriti aita, bere animaliekin agertu zaigu, herriz herriko festetan ibiltzen den moduan, poney eta zezenak lagun. Ezin zen bestela izan.

Testua eta argazkiak:

ENEKO DORRONSORO

Aita.

Arronamendin jaio nintzen, Deba eta Itziar artean, tunela pasata. Txiki-txikitatik hasi nintzen animaliekin. Gustatu egiten... Lehenengo katuak, gero untxiak... Gogoan dut untxi txiki bat, aita zenak erregalatu zidan hanka apurtuta zeukan untxi zuri bat. Neuk hanketan ohol txikiak lotu, eta aurrera atera nuen bizirik. Itziarra saldu nuen gero, eta... dirua! Orduan ez dakit zenbat izango zen, baina gurasoek diru guztia niretzat eman zidaten. Hura niretzat beste mundu bat zen! Hala hasi nintzen animalia eta animalia, eta...

Semeak.

Aitak beti izan du animalien munduaren beharra. Gasteizen bizi ginen, zentroan. Behin oroitzen ditut bizilagunak kexuka, soinu bat entzuten zutelako gaua joan eta gaua etorri. Guk ez genekien ezer, baina hontz bat zeukan aitak ganbaran gordeta, hontz txiki bat. Pentsa hark zer zalaparta aterako zituen gauetan... Eta horrelako kontuak dozenaka. Nik konprenitzen dut, hori izan da umetatik bere bizia. Animalia batzuk, untxiak... Jaio zeneko zulo hartan ez zen besterik. Bizia asmatu beharra zegoen han!

Halere esan beharra dut, ama ere badaukadala. Hura arrazionalagoa da, eta beste kontrapuntu bat eman dit. Bietatik izango dut zerbait, baina kameraren atzean banago, eta ez aurrean aita bezala, segur aski ama ere hor dagoelako da.

Ez dakit ba zure seme hau ez ote dabilen aldrebes xamar...

Hala esan zidan behin batek. Eta nik, “utzi semeari bere bidea egiten”. Mundu honetan



“Animaliak eta umeak. Niretzat hori grabea izan da. Eta horrela ibili ondoren, dauzkadan bezalako hiru seme eta tokatu zaidan bezalako andrea izatea...”

GORRITI

besteren etxeak konpontzen jarduten dugu, eta hemen norberak bere etxea antolatu behar du lehenengo.

“Aita, hau egin behar diat”, “bale, ondo zegok”. Tabernarekin hasi zen, eta arrakasta izan zuen. Izaera oneko mutila da Alberto... Gero pelikula egin behar zuela. Eta orduan hasi zen, mandoa gora eta mandoa beheara. Aian aurkitu nuen mando handi bat, 700 bat kilokoa. Hau duk *katxarroa!* Eta esan nion: “Hi, Juanito”, “zer?”, “hau saldu ez behintzat egin e, nire semeak oraindik pelikula egingo dik honekin-eta!”, “bai zera...”. Barre egiten zuen, Juanitok.

Tradizioa. Aita erail beharra Arriya gainetik kentzeko?

Arriya mutil baten askatasunerantzko istorioa da. Emantzipazioa. Eta horretarako guztiarekin hautsi behar du. Tradizioarekin, familiarekin... Ez aitarekin bakarrik, aita, ama, ingurua... Tradizioak kulturala izan behar duela uste dut, eta ez dakit ez ote dugun askotan gure zuloak estaltzeko erabiltzen. Estali behar horretan kultura sanoagoa iruditzen zait. Askotan tradizioak kulturaren baitan pausatzen dira. Eta ez badira mugitzen, moldatzen, kultura beharrean zama bihurtzen direlakoan nago.

Lan hau egiteko lagundu dit aitaren bidez ezagutu dudan mundu horrek: herri-kirolak, animaliak, apustuak... Eta baita baserri bizitzak ere. 16 urterekin Zumaiako Bitarte base-rrira etorri nintzen amamarekin bizitzera. Naturarekiko harreman berezia sortu zitzaidan hemen; ez zait iruditzen naturak tradizioa bizi duenik. Tradizioek mugak dituzte, gureak besteenekiko desberdin ikusten ditugu. Baina naturak denak lotzen ditu. Eta pelikulan badago hori: naturak, errekek ez du tradizioaz ulertzen.

Arriya mundu txiki baten abstrakzioa da. Ezagutu dudan mundu bat abstrakzioa egin dut nolabait, eta iruditan margotu dut.

“Gorriti burutik jota dago!”.

Behin ehizan ginela gertatu zitzaidan, txakur-
rak goizeko bederatztan aurkitu erbia, eta hiru orduren bueltan *plasta!* neure aurrean erbi hori. Gorde eskopeta eta erbiari pasatzen

“Barrenera zintzo begiratu, eta sortzen den irudia errespetatu eta maitatuz gero, mundua zerbaitetan aldatzen denaren sentimendua sortzen dit zinemak”

ALBERTO J. GORRITIBERIA

utzi nion. Ahoz aho zabaldu zuten Gasteizen, ingurukoen artean: “Gorriti ez zegok sano! Neuk ikusi diat nola utzi dion erbiari pasatzen”. Zer esango dizut bada, pena eman zidan, txakurra eta biak han ibili ziren zein baino zein norgehiagokan eta... Orain ere badaukat nik erbia bizirik. Baina ez jateko e, gustatu egiten.

Juez aritu nintzen sei-zazpi urtez, sokatira, harrijasotze... Eta gero hasi nintzen, zezen txiki batekin aurrea, umeentzako ikuskizunak antolatzen. Gero poneyak, oilarrak... Ikaragarri umezalea naiz. Niretzat umea da lehenengo, eta gero animalia. Eta iruditzen zait animaliekin jolastuz kultura bat ematen zaiola umeari. Eta ez. Ume batek telebistarekin bakarrik bizi behar al du? Ez du errealitatea bizi behar? Zer eman behar zaio, gailetak eta telebista? Kontzeptu horrekin ez nago ados. Nik uste umeari gaileta gutxiago eta potaje gehiago eman behar zaiola. Eta kultura mailan, animaliak. Hortik sortu dut nire pelikula.

Hori da aitaren pelikula.

Lagun on batek esan zidan: “Zuzendari izan nahi baduk bide bakartietan barrena ibiltzen ikasi beharko duk!”. Eta egia esan gustura nabil, gustatzen zait bide bakarti hau. Gero itzuli eta familiaz gozatzekotan. Baina zineak eskatzen du indar berezi bat, bakardade horri aurre egiteko ahalmena. Eta horretan izango dut aitaren eragina. Berak ere bere bidea egin du.

Umetatik ikusi dut, aposturen bat zela, ahari jokoa hurrena... Gertu bai, baina aita beti izan du hanka bat hortik kanpo. Beste mundu bat sortu du, eta esango nuke ez dela tradizioaren oinarri geldia bat izan. Mugitu egin da, buelta bat eman eta istorio bat sortu du. Gogoan dut behin herri txiki bateko haurrek kartelak jarri zizkiotela kalean, ongi etorria emateko. Haurren begiruneak asetzen du aita, eta zentzu horretan, tradizioa ongi erabili duela esango nuke. Ez da gutxi! Ez dut askotan analizatu hau, baina bai, berak ere badauka... Bere sormenean, lortu du bere mundu edo bere pelikula propioa egitea. Eta zerbait hobetzen ari dela sinesten du.



Aita Whiskyrekin

“Orain ditzosozko musika horrekin, *bom bom...* Hori musika bada... Nik badaukat poney bat, eta altabozak zarataka hasten direnean... ‘Whisky, benga barrura!’ Presioa jarriko zaio buruan, edo ez dakit, ez dakit...”

Semea tradizioaz

“Tradizioak nortasun bat ematen du, baina mugitzen ez bada ur geldi bilakatzen da, azkenean lokatzarekin nahastuz. Nire ustez tradizioak mugitzen direnean dira onak, erreka bat bezala mugitzen direnean”.

Jubilatzeko adinean jada...

Nahiko jubilatuta nago belauen hauekin, baina ez du inporta. Egiten dudana gustatu egiten zait, horixe da dena. Bestela aspaldi erretiratuko nintzen, baina 71 urterekin, mutil kozkorra ere laguntzaile ona daukat eta...

Animaliak eta umeak. Niretzat hori grabea izan da. Eta horrela ibili ondoren, dauzkadan bezalako hiru seme eta tokatu zaidan bezalako andrea izatea... Halere, semeekin ez dut horrenbeste denbora pasa, andreak hazi ditu gehienbat. Baina bi lekutan batera egoteko gai den inor ez dut nik oraindik ezagutu! Familiarekin gehixeago egon beharko nukeen akaso, edo animalia gutxiagorekin konformatu, arrakasta gutxiago... Izan ere, animaliekin arrakasta izan dudala uste dut. Santanderretik hasi eta Palentzia eta... Gandiatik izan da azkeneko eskaintza, baina ez noa.

Hemen geldituko dira diruak eta gainerakoak! Baina nik mundu honetatik badakit zer eramango dudana: hiru seme, andrea eta arrakasta izan dudana nire mundutxo hau. Hori da nire historia.

Eta zurea, Alberto, zinema.

Bizitzan pixka bat hobea izateko aukera ematen dit. Irudi soil bat sortzea, amets bat bete zezaren... ez dakit. Barrenera zintzo begiratu, eta sortzen den benetako irudi hori errespetatu eta maitatuz gero, mundua zerbaitetan aldatzen denaren sentimendua sortzen zait.

Pelikulak egiten ez dakit ona ote naizen, hori besteek esango dute. Baina prozesuan, lantaldeetan uste dut oso harreman onak sortu direla, bai *Etsi!*-n, flysch-ari buruzko dokumentalean, *Arriyan*... Sarri pelikula bat egitera joan, lantalde handi batean sartu, eta idealak kontatzen ditugula iruditzen zait.

Gidoi bikaina, eta zein zintzoak garen, eta nola hobetu dezakegun gizartea, eta... Errealitatean ordea, grabaketan zehar bizitzen diren historiak oso krudelak izaten dira batzuetan. Eta nik uste garrantzitsuagoa dela zintzotasun hori lantaldean bertan adieraztea. Gainontzean ez dakit zertarako ari garen zinea egiten. Lana egin behar da, noski, eta nik ere gauza asko egin ditut bizitzeko, baina ez diot zentzurik ikusten. Hau ez da koadro bat margotzea, hemen beharrezkoa da lantaldearen ekarpen kreatiboa zein profesionala. Azterketa polita da grabaketak nola bizi diren ikustea, kontatzen diren istorioak benetakoak ote diren jakiteko. Agian nire teoria izango da, baina uste dut hausnarketa polita duela.

“Gorriti, a ze semea egin duzuna!”

Zer edo zer izango ote du aitarena, narrua edo... Ez dakit, zerbait izango du. Halere honek gauza bat du nik ez nuen. Eskola, eta nik ez nuen eskolarik. Hor joaten naiz herriz herri, eta badakit erdaraz ez dudala ondo egiten, eta euskaraz... Hara! Ni naiz pertsona bat ez euskaraz ez erdaraz ondo. Gasteizen tailerrean inork ez zuen euskaraz egiten eta badakizu...

Semeak halere okerreko karrera hartu zuela uste dut. Abokatu izan behar zuen. Hizketan badaki gero. Kategori handikoak dira hiru semeak, baina hau irten zaigu pieza! Pelikula bukatu zenean ere, afaritakoan aktoreek-eta hala esaten zidaten: “Gorriti, a ze semea egin duzuna?”. Eskerrak. Zerbaitetan behintzat asmatu nuen! ■

argia.com Elkarrizketaren bideoa laster ikusgai izango duzu gure webgunean.

GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



TTAKUN (H)ERRENKA

Oporrik gabe

DANI BLANCO



Ixne Apaolaza



Padrón



Sarasola

Beñat zure nobelan hiltzaile izateko ohorea ematen badidazu, arren, izan dezala ausardia aski detektibeak —Jose Luis— zerbeza bate-tara gonbidatzeko, pare bat behintzat beharko baitugu. Badira bi aste bere maiteminaz pentsatzen ari naizela, Alaitz eta Maiderrekikoa, bai, (gai serioe-tara itzuli beharko genuke, ez baitakit Jose Luis, kontu arino-kin gure buruari fabore egiten diogun, oso Eras-mus, bokazio komertziala leporatuko digute) eta ez zait kasualitatea iruditzen nire nerabezaroko maitasun platonikoa Jon Sarasua izatea, gaur egun ARGIAko bideoetan ikusi eta bere paleta zanpatuekin hipnotizaturik geratzerraino. Diot, ez dela kasualitatea, zureek eta nireek badutelako kastitate katolikotik gertu dabilen irudi onbera, eta zure trikitixarainoko zirrara horrek ez zirudien teologiaz hitz egiteko gogoa... zein morbo gaiztok mugitzen gaitu?

Gainera Beñat, beroa erotikoa izateaz gain, edo hargatik, hiltzaile senen pizgarri ere izan liteke; sar-goriak hiria hartzen duenean Faulkner edo McCarthyk idatzi gabe baina imajinaturik utzi zituzten krimen guztien susmoa sortzen zait, Liza-rralderen ipuinetako orrialdeetan egin gabe utzi nituenak; hiltzaile papera egin nezake beraz nahiko egoki. Ez dakit zein hiltzaile mota nahi nukeen izan ordea.

Orain iraultzak baketsuak direnean (beharbada horregatik ari da hainbeste atzeratzen) ezin naiz bankariak hiltzen hasi. Zalantza sortzen zait gainera, erabaki ekonomikoen ondorioz krimenak eginez hasiko banintz, laster bihurtuko nintzateke nahi-ko espainolista, izan ere, ni Madrilen bainaiz langile, PNVri orain hainbeste molestatzen dion Espainia pobre horretakoa, eta noski, beraien kontra egin behar-ko nuke lan erreformaren kontu-
ra, aurrekontuen kontura, beti noski nazio trapitxeoen aitz-

kiaz, mesedez, PPk hautes-kundeak irabaztean egingo dituztenengatik, Sarrionan-diak aldizkari honetan utzi zuen esaldiaren kontra, eus-kaldunak bankariago baikara senegaldar etorkin baino, dirudienez (zin dagit, ez dugu etorkin senegaldarren antzik, eta beraien egoerarekiko errespetuz diot); ez da egokia

klase kontuez nazio kontzeptu bidez hitz egi-tea, zehazgabe eta injustua izaten da.

Madrilen duela egun gutxi Vallecasko taberna batean gertaturiko bahiketaz oheratu ginen, ezer lapurtu nahi ez zuen gizon baten eskutik. “Depresioa dela eta tratamenduan zegoen” has-ten ziren berriak hurrengo egunean. Elkarri begiratu genion lagunak eta nik: “Aizu, gogoa ematen du zerbait egiteko, ez gara tratamenduan alferrik egongo”. Beñat, bolondres bat gehiago hiltzaile izateko, bikotea ginateke, bat tratamen-duan, bestea tratamenduan izana, titularretarako balio izaten du, behin psikiatratik pasa bazara, psikiatratik pasa direnen perfil bihurtzen baitza-
ra, eta hilketaren bat egiten baduzu, zer esanik ez.

Arriskutsuak gara oporretan ez gauden guz-tiok; lanean ari garelako, langabe gaudelako, edo deprimiturik. PNVri espainiar pobreek sortzen dioten disgustua kontuan izanik, hirugarren mundu izaten hasita, gero eta gehiago hobe orain Palestinar bokazioa utzi eta alemaniantzen ari den Euskal Herriarentzat, patronala berdin gogaitzen dugu, alegia, pobreak, genetikoki pobreak, gero eta urrunago man-tentzeko hartuko diren neurrien ondoren, askoz gehiago izango gara etorkizuneko abuztuetan Madrilen itzulika ibiliko garen sistemaz kanpoko depresiboak, oporretatik bueltatu direnen arropatan itsaso bila usnaka. Hil-tzaile ere izan gaitezke, hartara jarrita, aukeratzeko izango duzu Beñat; denbora librea oso txarra da oporrik gabe. ■



Orain iraultzak baketsuak direnean
ezin naiz bankariak hiltzen hasi. Zalantza
sortzen zait gainera, erabaki ekonomikoen
ondorioz krimenak eginez hasiko banintz,
laster bihurtuko nintzateke nahiko
espainolista, izan ere, ni Madrilen bainaiz
langile, PNVri orain hainbeste molestatzen
dion Espainia pobre horretakoa



Kattalin Miner

TABERNA ZULOKO BLOGARIA

Bolleroon oporrak



rain aste bi, oporretan izan naiz Madrilen. Kondeszententzia tonu batekin batek baina gehiagok galdetu dit ea “*orgullo*”-ra joan naizen, eta nik ezetz, opor egun batzuk pasatzeko egin dudala bidaia. Orduan Chuecan ibiliko nintzela botatzen dute atzetik, eta nik ezetz, gorroto dudala Chueca, ez dudala horrelako leku despolitizaturik sekula ezagutu. Pozten zarela diozu, gethoak gorroto dituzulako, eta ea nola lortuko dugun “normaltasuna” beti gure artean biltzen bagara eta espazio normaletan ez bagara ikusten uzten. Beti izorratu izan dit horrek, badirudi bollera izatea erabaki dugunok beti zor diogula gizarteari, onarpeneraren truke, lan pedagogiko bat.

Gauza da, leku normaletan ibili behar dugula esaten diguten horiek guztiek ez dutela haien denboraren segundo bakar bat ere hartu pentsatzen zein akigarria izan daitekeen zoazen lekura zoazela lekuak “irekitzen” eta lesbianak normalizatzen ibiltzea. Ulertzen dut eskapatu egiten zaiela askori, baina jakin nahiko nuke zenbat bikote heteronormalek jasango luketen dauden lekuan daudela begirada guztien jo-puntu izatea, tontakeria asko entzun behar izatea, babosoe inguratzea, batere goxoak ez diren hitzak entzun



DANI BLANCO

behar izatea... Ulertuko duzue niri egun, horrek bost axola didala, diot denborak ohitu egiten zaituela eta jada askotan ez naitzela konturatu ere egiten. (Ez da esan beharrik ere, zelako plazera sortzen didan, demagun, familia dezente baten deserosotasuna nabaritzeak. Hor ahal izan ezkerotitiak ukitzen dizkiot aurrean dudanari, badaezpada ere, argi gera dadin).

Gauza da, beste askorentzat bezala, bollerontzat ere udara iritsi dela eta guk ere, lagunekin, bikotearekin edo dena delakoarekin oporrak egin gura ditugula. Eta galdetzen didazu ea Chuecara joan naizen. Ba ez, kontatu nahi dizut, Sol inguruko ostatu batean lo egin dugula, iritsi bezain pronto langilearen susto aurpegia jasan behar izan dugula ohe berean lo egingo dugula ezin deszifratu ibili ostean, eta gero, gero baietz, leku normaletan ibili garela nazkatu arte (Euskal Herrian bezalaxe). Baina lesbianen leketara ere joan garela noski, eta feministen

antro eta gethoetara, ze, jakin, urte osoa heterorauaren aurka, zuen espazio eroso eta normalak subertitu eta hezten pasa ostean, guk ere oporrak behar izaten ditugula, lesbiana artean, feminista artean, inork gehiegi molestatu gabe, lasai. Zer dira oporrak ba, hori ez bada? ■

Gauza da, beste askorentzat bezala,
bollerontzat ere udara iritsi dela
eta guk ere, lagunekin,
bikotearekin edo dena
delakoarekin oporrak
egin gura ditugula

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



oparotasunean. Eredugarritzat zituzten euren buruak, orain berrogeita bost bat urte ezagutu nituen haiek. Talde ttikitari antolatuak, gure auzora etortzen ziren

astero ebanjelizatzaileak Afrikara nola. Kirolean eta musikan genuen burua, lanaldi ondorengo eskola teknikoan denbora. Marxistak omen ziren, PCko komunistak. Ez gintuzten erakartzen, haietako buruek ikas-tea zuten lana, gurasoei edo denbora dohain eskainia. Ezagutzen ez zutenaz mintzo ziren, lanaz, lansarien miseriaz, lantokiaren militarizazioaz, alferriki galdutako langileen indarraz. Francoren heriotzak eraman zituen

Gosetiak

PSOEra, jada ez ziren hain komunistak. Botereak kapitalismoaren onuren ederra dastarazi zien, eta honek mantxarrik gabeko giza-kia bailitzan bere erraietan irentsi. Donostia-

ko erdialdetik atera gabe, bi bat orfeoi osatzeko adina ezagun dut. Eszizioak probokatzea izan dute kirol prestatuena, herritarren sosez kontu korronteak gizen-tzea musikarik dantzatuena. Eta eskola sortu zuten. Orain Araba aldean izan dute istriputxoak, ohiko labaintze irristatzea. Baina oraingoan seinale ezkutagaitzak utzi dituzte zolatan, hain gailu zamatsuak arrastak maiz herritzea galdetzen du, eta inertzien nagia akaba dezake. *Damage*. ■

Iñaki Barrena

EKOLOGISTAK MARTXAN-EKO KIDEA

Kukutza

Donibane egunaren bezperan, Banco de España kalean geunden –EHUk Bilbon duen egoitzan– deshazkundeari buruzko ikastaro batean. Kanpotik etorritako jendearekin komentatu genuen, bertan –hamar urtez– Alde Zaharreko gaztetxea egon zela. Berri txarra heldu zen orduan: “Kukutza deslojatu nahi dute Errekaldeko orube horretan etxebizitza berriak eraikitzeko”.

Okupazioaren mugimendua eta gaztetxeak dira pentsamendu kritiko eta ekimen solidarioen sortzaile nagusietarikoak, baita harrobi ederra beste herri mugimendu eta ekimen sozio-politikoentzat ere. “Antisistemikoak” eta “integrazinak” tituluak ezarri zaizkie, baina denetarik jendea murgiltzen da euren hormen artean; adinez eta kolorez, filosofiaz eta praktikaz. Aniztasun hori, euren indarra da.

Kukutza ikur abegikorra eta erreferentzia sozio-politiko sendoa bihurtu da azken hamairu urteotan Errekaldeko auzoan hain zuzen ere, baina mundu zabalean ere eza gutua eta maitatua da. Eta gorrotatua noski, Bilboko patrizio eta gobernarien aldetik. Nazioartean irudi distiratsua eta garaileen xarma paseatzen dituen hiriak, antza, ezin du horrelako okupazio adibiderik onartu. Eta modu horretan, txanpon beraren bi aldeak



IÑIGO AZKONA



Guztion elkartasuna,
laguntza eta
esfortzuarekin
Kukutzak bizirik
iraun lezake.

Kukutza ikutu bez!



agertzen dira, aurpegian Bilboko marka internacional eredugarria eta ifrentzuan auzo baztertuen exenplu kontrajarriak.

Errekalden –frankismoaren arotik gaur egunera– erresistentzia eta marjinazioaren aurkako kultura politiko sendoa errotu da. Bilboko auzo borrokalaria eta alboratua harro dabil bertan –auzoaren erdian okupatutako fabrika horretan–, astero antolatzen diren ekintzekin. Berriz ere, konfrontaziozko sasoi latzak datoz. Eta legea, aberastasuna eta jabego pribatuaren defendatzaileak laster agertuko dira etekinen eta korrituen bila.

Okupazioak, autonomiak eta auto-organizazioak ez dute lekurik titaniozko Bilbon? Baliteke. Baina hiri magaleko auzoen eta erdigune txukunaren arteko orekarik eta elkar komunikaziorik ez dagoen bitartean, txanponaren alde iluna beti egongo da prest aurpegi politari akatsak ateratzeko.

Alde Zaharreko Gaztetxea kultura eta unibertsitateko egoitza bat bihurtu zuten lehenago. Kukutzan beste plan batzuk dituzte: krematistikoak, materialistagoak... Asko dira elkargune aberasgarri honen alde atera direnak eta prest daudenak erasoari eusteko. Guztion elkartasuna, laguntza eta esfortzuarekin Kukutzak bizirik iraun lezake.

Kukutza ikutu bez! ■

TXANDAN

Amatiño

Aro berria, omen



Euskadiko Jaurlaritzan parte har zezan gonbitea luzatu zien EAJk ETARI zein ezker abertzaleari 1970an, eta *Branka* aldizkarian (1971ko otsailan) erantzun zitzaion, denbora ez dela alferrik igarotzen, 1936tik 1971ra 35 urte pasatuak zirela eta aldatzeko ordua zela. Alegia, 1936an “21 urte zituztenak, gaur 56 urte dituzte” gogoratu zitzaaien jeltzaleei.

Bai, seguru asko 35 urtean gauzak dezente aldatzen dira eta 1971an 56 urte zituzten guda-riak zahartzat jotzeko arrazoirik bazuen ETAK. Kontua da, ordea, 1959an ETA sortu zenetik,

35 urte ezezik 52 joan direla eta 1959an 21 urte zituztenek 73 urte dituztela egun.

ETAK 56 urteko jeltzaleak jubilatua gura izan zituen 1971n, baina berak orain 73 urte izan arren ez du bere burua jubilatua nahi. Are gehiago, azken agirian ETAK gogorazti nahi izan digu zelatan jarraitzen duela ezker abertzalea ondo porta dadin.

ETAREN balantza mortala da gero. Alzheimerrek jotako agure agintzaile narzisista baino ez da eta, azkenean, duela berrogei urte ontzat eman ez zuen Eusko Jaurlaritzan sartzeko alda-ba jotzen amaituko du, “aro berria” heldu dela-koan. ■

ZIRTAK

Jose Inazio Basterretxea

IDAZLEA

Estutu eta hertsatuak

Mundua laua zen garaietan, bazen herri bat festari begira bezala, indarkeriari ere begira bizi zena. Udaldian izaten ziren bertako ospakizun erlijiosoak eta ludikoak, eta udaldian bertan baita bortxaketa izugarrienak ere. Ez jaiegun epel horietan bakarrik; baina, horietan egin zen bereziki nabarmen ezen batzuentzat jolas zenean abusua eta basakeria, beste batzuentzat olgeta hori errespetu-falta eta min bihurtzen zela; eta inoiz, heriotza, gerora ikusiko dugunez.

Amamaz amama eta aitaitaz aitaita, goitik behera aldatu zen mundua, urteen poderioz. Atzean geratu ziren munduaren lautasunaren sineskeria haiek guztiak. Zientziak ongi asko erakutsi baitzuen biribila zela habitatzeko dugun planeta hau. Lurra ezagutu genuen benetan; Ilargia, baita Martitzen ere.

Halere: jaiak jai, eta bortxak bortxa. Kontu horietan, deus ere ez zen berritu. Eta egun, berdin segitzen du denak.

KAOSAREN BRIGADAK. Festetarako, zapi zale amorratua da herri hura: jaiak heldu direla adierazteko, painelu bat eramaten dute denek lepoan lotuta. Gorria daramate herritarrek egun batzuetan, beste batzuetan daramate urdina, eta, inoiz, baita berdea ere.

Munduko lau bazterretan legez, udako solstizioaren inguruan izaten dira festa erraldioen arteko lehenak herri hartan. Zapi gorria hartu eta hor abiatzen dira gazteak nahiz zaharrak festara: dela zezenaren aurrean korrika-saioa egitera, dela musika jotzera, dela lagunartean afaltzera.

Modus operandi berarekin, zapi gorria hartu eta lepoan lotuta, hor abiatzen dira kaosaren eta nahasmentuaren brigadak: gainerako herritarrekin nahastuta, ikusezin bihurtzen dira.



INIGO AZKONA

Ordu txikietan, ordea, oldartu eta nabarmendu egiten dira: batzuk pattarraren kausaz, beste batzuk auskalo zeren kausaz.

Lehendabizi isolatu eta, ondoren, laidoz betetzen dituzte sasiko horiek gainerako herritarrek; gehienetan, emakumeak. Eta hor hasten da emakume festazalearen zama, emakumearen ez beste inorena.

Gogoz kontra hartzen dituzte emaztekiak, barren-barreneraino gogoz kontra, hori beti legez; baina, honatx aspaldiko berrikuntza: bortxatu ondoren, harresietan abandonatzen dituzte, edo auto baten azpian, edo itsasoan... gorputz lerden horiek puztu eta zarta daitezen begi guztien aurrean.

BESTA LIBREAK. Asko eta ugariak dira jaiak, nonahi. Baina, ez datoz beti bat batzuen jolasa eta besteen olgeta.

Besta libreak eskatu dituzte emakumeek. Alkoholarekin moztortzen diren eskudroi horiek pertsegitzeko erregutu dute. Auto-defentsa eratu dute. Eta eskatu, agintariei eskatu diete *stop-txipa* ezartzeko lepoko zapietan. Inoiz gorri, inoiz urdin, edo inoiz berde diren horietan guztietan.

Stop-txipa zer den ez dakienarentzat, esan dezagun gailu bat dela, aparatu elektroniko arrunt txiki eta nanoa, eramailea geldiarazten duena bulkada elektriko indartsu baten bidez. Bulkada elektriko aktibatzen da “ez, joder; utzi bakean” esaldia metro bateko distantziara entzuten den aldiro. Hirugarren bulkadak gailuaren eramailea utz dezake betirako inpotente, apo eta aketz; menbrua tentekorra ez baitzaio berriz ere zutituko.

Besta libreak eta sexu askea. Zapi lepoan eta zakila zuloan.

Zapi lepoan eta alua aluaren ondoan. Nahierara, baina adostasunean. Eguraldi ona, eta aldarte hobea. ■



irudia:

Antton Olariaga

BERTSO BERRIAK

Aitor Sarriegi Galparsoro

Bertso berriak, uztaileko arratsaldeei jarriak



DANI BLANCO

I

Euskalerriko zaletasuna
ez den arren nobedade,
udan sartuak garenez gero
hona zenbait kontu pare.
Bazkaltzean nahiko jan
ondoren, etzan sofán
eta xuabe-xuabe...
Zer da uztaile siestarik eta
Frantziako Tourrik gabe?

II

Tourraren arau guztietatik
aipamen txiki bat aurki,
idatzi gabe egonagatik
beti betetzen den bati.
Hasieran bai ernai
sprinta noiz heldu zai,
begiak nola ireki...
bukatu eta bost segundora
esnatuko zara beti.

III

Helikoptero irudietan
noiz ez zaizkigu agertu
lasto fardo ta traktoreekin
zenbait irudi okertu?
Bi besoak zabaldu
(eta karrera galdu
pasatuagatik gertu)
frantsesek duten zaletasun hau
ez dut sekula ulertu

IV

Pirinioak iristen dira
etapa lauak utzita,
jan ta edana maite duenak
derrigorrezko bisita
portuaren maldetan,
mugaren bi aldetan
euskal zaletuen zita,
koberturarik ez dute baina
denak laranjaz jantzita.

V

Ziklistetatik zein bai ta zein ez
taldeak ere hautatu,
batzuk barkatu, besteak ahaztu
ta nahi dena inputatu.
Azkenaldian Tourra,
ta ez jarri muturra,
ezin delako ukatu,
bulegoetan hasten da eta
bulegoetan bukatu.

VI

Kilometroetan egin ondoren
hiru bat mila inguru
Champs Elysée-tan azken egunez
elkartzen dira bi mundu;
jende olde itzela
ta bestetik tropela,
azkenak ere lortu du!
Orain zer egin arratsaldetan
pentsatu beharko dugu.

DOINUA: Iparragirre abila dela.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

e r d i k o k a i e r a

Liburuak

**Abuzturako
gure proposamenak**

Maleta betetzen ari zara gonaz, galtzaz, alkandoraz, desodorantez, kamisetaz, kuleroz, galtzontziloz, hortzetako pastaz, sandaliaz, zapatilaz, galtzerdiz, eta bat-batean, irakurtzeko zer edo zer beharko duzula jabetuta, galdera batek asaldatzen zaitu: zer eraman? Aldizkari hau, noski, ez duzu bidaide txarra izango; baina zerbait gehiago ere beharko duzu abuztuko egunetan zure letra gosea asetzeko. Kontuan izan dugu, lasai: jarraian dituzu ARGIAko erredakzioak udan irakurtzeko gomendatzen dizkizun zenbait liburu.



Janarien fabore

Saiakera

Pello Zuhiria



El detective en el supermercado. Michael Pollan. Temas de Hoy. 286 orrialde. 17,5 euro.

LIBURUAK akats bakarra azalean dauka, editore artabururen batek *In defense of Food* gaztelaniaz *El detective en el supermercado* emanik. Hori ahaztuta, bigarren titulutik hasita (“*Come bien sin dejarte engañar por la ciencia y la publicidad*”) azkenea arteko orri guztiak ditu primera-koak. Michael Pollan kazetariak (*The Omnivore’s Dilemma: A Natural History of Foru Meals...*) paradoxa honi erantzun nahi dio: nola espikatu elikaduraz eta dietez eta sanoki jateaz hain obsesionaturik (ortorexia) dagoen populazioa aldi berean hainbeste gaixotasunek jota egotea? Erantzuna: mendebaldeko elikadura estiloan gaur jakirik ez dagoelako, jakien lekua elikagaiek harturik. Gaztelaniaz esanda,

“comida”-ren ordeztu “nutriente”-ak. XX. mendean industriak eta honen morrontzan zientziak indartu



WWW.GURUSFEET.COM

duten nutrizionismoaren (“ez da gai zientifikoa, ideologia baizik”) eraginez, gaur hipermerkatuetan jendeak otorduak prestatzeko erosten duen gehiena ez da jakia, elikagaia baino. Jaki osoetatik birfinduetara, janari konplexuetatik osagai sinpleetara, kalitatetik kantitatara, hostoak jatetik nagusiki haziak kontsumitzera, jatearen kulturatik elikagaien zientziara... XIX. mendetik industriak eta zientzialari motzegiek eragin diguten gainbeheraren urrats nagusiak deskribatu ditu Pollanek, historia ondo ezagutzen duen kazetariaren estilo gozoz. Ez jan zure amonak ezagutuko ez lukeen ezer, ez sinetsi elikagaien balizko ahalmenik, alde egin azkar hipermerkatutik... ■

Haserretuak Berkeleyko campusean

Kronika

Gorka Bereziartua



La revuelta de Berkeley. Hal Draper. Anagrama. 194 orrialde.

BETI DAGO lehenago gertatu den zerbait. Adibidez, ikasle-mugimenduan: Bolognaren kontrako protesten aurretik LOUren kontrakoak. Edo, 68ko maiatzaren aurretik, Berkeleyko unibertsitateko (AEB) Free Speech Movement-a. Ikasleek campusa jarduera politikoetarako ere erabili ahal izatea eskatu zuten 1964-1965 ikasurtean eta alimaleko saltza eragin: atxiloketak, istiluak eta gaur egun arte iraun duten mobilizazio-erritualak (eserialdiak, adibidez). AEBetan ez ezik,

mundu osoan arrastoa utzi zuten gertaeren kronika egin zuen Hal Draper marxistak liburu honetan. ■

Aita Agirrerekin berriketan

Saiakera

Urko Apaolaza




Lazkaoko Beneditarren dokumentazio-gunea. J.M. Torrealdai. Lazkaoko Beneditarren fundazioa. 60 orr. 10 euro.

APERITIBO BATEAN leitzeko moduko liburua da honakoa: laburra, bizia eta kolore askotakoa. Juan Jose Agirrerren ahotik, Lazkaoko artxibo mitikoa nola sortu zuen eta barnean zein altxor gorde-tzen dituen ezagutzeko parada izango du irakurleak. Montserrateko liburutegi zaharrera bidiaia, trantsizioan klandestinoki egindako bilketa lana, 2005eko guardia zibilen operazioa... Hori guztia, gainera, aldizkari eta dokumentuen irudi ugari

lagunduta. Gure oroimen politikoaren biltegi handienaren aurkezpen gutun efikaza da Torrealdairaren lantxoa. ■

“Askatasuneranzko bidean Guardia Zibilak erahilda”



Koldo Arriola.
Imanol
Oruemazaga.
Ondarroako
Historiazaleak.
177 orrialde.
12,95 euro.

Biografia

Mikel Asurmendi

KOLDO ARRIOLA 1956an jaio zen. Ez zen jaio lez hil, hil egin baitzuten. 35 urteren ostean bere izenak titulua eman dio liburu bati. Koldo Arriolaren nerabe irudia ageri da azalean, beltza gorriaren gainean ageri ere. “Ondo lotutako hilketaren istorio beltza bezain sakona” azpiztituluak ondo baino hobeto jasotzen du Koldori jazotakoa.

Liburuaren egileak liburua ez dela berea esan ohi du, Koldoren lagunena baizik: “Ni testigantzak eta oroitzapenak jasotzeaz arduratu naiz” dio Oruemazagak.

Arriola herritar arrunta ei zen, politikan nahastu gabea. Bitxia da gure historia, istorio beltzak bezain sakonak bil-


tzen dituen. Istorio beltzez osatua. Historia hau berau arrunta izaki. Arriolatarrak erregimenaren aldekoak ziren, frankisten aldean paratuak, halabeharrez edo hala nahiz. Nork bere zoria.

Bi bider hil ei zuten Koldo. Amak seme bakarraren hilketari salatu zuen –Guardia Zibilaren koartelean hil zuten–, eta salaketa bera ipintzeagatik Guardia Zibilak tribunaletara eraman zuen familia.

Jite frankistako familia tribunal faxistetara deitua, hara. Izan ere, erregimenekoa izanagatik, katolikoetan katolikoena izan arren, gaitza baita Guardia Zibil bati arma desarratu zitzaioela sinestea.

Bitxia da gure herriaren historia. Gorriaren gainean beltz, zuriaren gainean grisa. Zuri-beltzeko argazkiek ilustratzen dute liburua. Tristeak bezain ederrak. Honela dio Arriola sendiaren panteoiko oroitarriak: “Koldo Arriola. Askatasuneranzko bidean Guardia Zibilak erahilda. 1975ko maiatzak 24. Ez zaitugu inoiz ahaztuko. Zure gurasoak”. ■

Demokrazia, paper zurian



Ensayo sobre la lucidez.
José Saramago.
Punto de lectura.
500 orrialde.
10,99 euro.

Nobela

Unai Brea

IZENA AIPATZEN EZ DEN baina Portugal izan litekeen herrialde bateko biztanle gehienek hauteskundeetan boto zuria ematea erabaki dute. Sekula ez bezalako krisi instituzionala ate joka dago, eta horrek estatuen benetako botereak iratzarriko ditu. Saramagok, eleberririk bikain honetan, agerian utzi zituen partitokraziaren miseriak eta alderdirik ilunenak. Beti gomendagarri, *Ensayo sobre la lucidez* ia nahi-taezko bihurtzen da, letra larri idatzitako Haserrearen biharamunarekin hasi zitzaigun uda honetan. ■

Heterosexualitateaz harago



Desira Desordenatuak
Batzuen artean.
Utriusque
Vasconiae.
379 orrialde.
25 euro.

Saiakera

Oñintza Inureta Azkune

HETEROSEXUALITATEAZ besteko sexualitateen inguruko irakurketak biltzea izan da liburu honen asmoa. Obra literarioak interpretatzeko bestelako betaurrekoak jantzi dituzte egileek eta gehien landutako esparrua pertsonaia gay eta lesbianena izan da. Besteak beste, ondoko gaiak aurkituko ditu irakurleak: gay poesiaren antologia, Antzinateko Grezian gaur egungo euskal poesiari; ahazko literatura, euskal eleberrigintza eta ipuingintza garaikidea begirada lesbikoarekin; eta Itxaro Bordaren “Gaiaren minean” artikulua. ■

**ZIENTZIA
IRAKURLE
ORORENTZAT**

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.

**BIZKAIA
BIZIA**

Iruditan ikusi dut

Nobela

Eneko Dorronsoro



ITSASOA HASTEN DEN tokian dago Almayer ostata. Eta bertan hainbat gizaki bakarti, itsasoak euren galderak erantzungo dituenaren esperantzan.

Irakurri ahala iruditan ikusi dut. Plasson jauna hondartzan dago, koadro bat margotzen. Pintzelaren trazak mihise zurian desagertzen dira lehorte orduko.

– Zergatik ekartzen dituzu kolore horiek guztiak, gero erabiltzeko kuraiarik ez baduzu?

Kobrezko tazan pintzela busti, eta ezpainenetan pausatzen dit Plassonek. Busti


zapore bat nabari dut.

– Itsasoko ura! Gizon hau itsasoarekin ari da itsasoa marrazten. ■

Nazien kontzentrazio-eremutik Moncloara

Autobiografia

Xabier Letona



Federico Sánchez se despide de ustedes.
Jorge Semprún.
Tusquets.
320 orrialde.
8,95 euro.

IRAGAN EKAINEAN hil berri den Jorge Semprún –edo Federico Sánchez, klandestinitateko izenean– 1988an izendatu zuen Espainiako kultura ministro Felipe Gonzálezek. Parisko bizilekutik Madrilera berriz, 1936ko gerran utzitako hiriburrura. Iraganean ziren nazien aurkako erresistentzia, Buchenwaldeko kontzentrazio eremua, PCEko buruzagitza eta klandestinitateko garaiak. PSOEko gobernu haren itzulinguruan bere bizitza eta orduko Espainiako pasarte ugari

aletzen ditu tinko eta joan etorriko idazkera aberats eta erakargarrian. ■

2.000 orrialdeko manga mitikoa

Komikia

Jon Turner



Akira.
Katsuhiro Otomo.
Ediciones B.
2.000 orrialde.
65 euro (6 liburu).

ZIENTZIA FIKZIOZKO komiki japoniar klasikoa da *Akira*. Jatorrizkoa zuri-beltzean

marraztu zuen Katsuhiro Otomok duela ia 30 urte, eta bertsio berriago batzuek kolorea eman badiote ere, aurrenekoaren xarmak itzalpean uzten ditu. Gainera, koloreek ez dute aparteko ekarpenik egi-

ten. Are gehiago, zuri-beltzeko marrazkien xehetasun batzuk galdu egiten dira, etxe-orratzez betetako paisaia apokaliptikoen kasuan bereziki.



2030. urtean, Neo Tokio hiria Joko Olinpikoak jasotzeko prestatzen ari da, 1992an Hirugarren Mundu Gerra piztu zuen ustezko bomba atomikoaren ondorio suntsitzaileak ahaztu nahian. Mehatxu beldurgarri batek, ordea, izua ekarri du. Akira esnatzeaz da eta bando desberdinak borrokarako prestatzen ari


dira. Zientzia fikziozko manga da *Akira*, baina generoari mesfidantzaz begiratzen diogunok ere, arrotzegiak egingo ez zaizkigun osagai ugari aurkituko ditugu komikian: konstituzioa nahierara egokitu nahi duen ejertzitoa, tsunamiak, gazteak irensten dituzten droga indartsuak, peregrinazioak negozio-gune bilakatu diren gotorleku erlijiosoetara, Gobernu errepresiboa, insurgentzia...

Agian kosta egingo zaizue *Akira* komikia liburu-dendetan aurkitzea, baina litekeena da zuen herriko liburutegian eskuragarri izatea, baldin eta zuen herriko liburutegiak uda parte honetan ateak ixten ez baditu, noski. ■

Turismo globalaren albo-kalteak

Gida-liburua

Axier Lopez



The no-nonsense guide to tourism. Pamela Nowicka. New Internationalist. 144 orrialde. 7,99 euro.


“ERRESERBAN sartzen ari naiz, oporrak behar ditut” zioen lagun batek erregeaiez urri dagoen autoarena egiten. Zeinek ez du maite egunerokotasun astunarekin apurtu, hondartza eder batean erlaxatu edota exotikoa zaigun lurraldean barna galtzea? Turista izatea erraza zaigu baina gure estresaz herrialde urrun batean gabetzeak zer eragiten die hango lur zein biztanleen bizi-kalitateari? Azken bi hamarkadetakotako turismo masifikatua jasagarria al da? Lonely Planet gidan kontatuko

ez dizkizuten erantzunak liburu txiki honetan topatuko dituzu. ■

Israelen erretratu gordina

Saiakera

Mikel Garcia



El judío errado Alberto Pradilla. Txalaparta. 220 orrialde. 18,55 euro.

ISRAELGO GIZARTEA aurkeztzen digu kazetari iruindarrak, han bizitako esperientziaren eta elkarriketatutako juduen emaitza. Testuingurua eta analisi sakona lagun, israelarren kontraesanez eta barne-gatazkez mintzo zaigu liburua. Propagandaren bidez biktima bihurtu den gizartearen irudikatu du, gorrotoz bete, segurtasunarekin obsesionatua eta erlijio ultraortodoxoaren eraginpean; kolonizazioaren oinarritutako ekonomia bultzatuta, bakea baino

gehiago gerra mantentzea komeni zaion Estatua. Errealitate beldurgarria, tragedia-aren dimentsioa ulertzeko lagungarri. ■

Hausnarketarako liburu ezberdin bat

Saiakera

Lander Arbelaitz



Moroak gara behelaino artean? Joseba Sarrionandia. Pamiela. 712 orrialde. 29 euro.

EUSKALDUNOK gure etxean bertan moro izan gara, eta oraindik ere askorentzat bagara. Historian, baina, zertan islatu izan da hori? Egin al dugu gogoetarik gaiaren inguruan? Amazig edo bereber herriaren historia harilkatuz, Afrika iparraldean bidaiatzera gonbidatuko du irakurlea Joseba Sarrionandiak, nolabait, Euskal Herriari buruz hitz gutxiarekin asko esateko. Ezohiko liburua da hau. Bere 712 orriek –200 argazki eta 1.387 ohar– irakurlea izu lezaketen arren, erraz irakurtzen den saiakera da. Baina izen bat, ohar bat, argazki bat, aipu bat... ematen dituen chunka erreferentziak bide berriei ekiteko gonbidapenak dira.

Kapituluetan tartekatuta dauden pertsona ezberdinen biografiek kolorea ematen diote lanari, eta askotan lotura zuzenik ez badute ere, orokorrean deskriba-



Abd el-Krim buruzagi arrifia aipatzen du, besteak beste, Sarrionandiak liburuan.

tzen ari den argazkia osatzen laguntzen dute testuok. Izan Pedro H. Sarrionandia frantziskanoaren bizitza, Primo de Rivera diktadorearena, Abd el-Krim buruzagi arrifiarena edo Felix Urtubi bere hegazkina etsaiaren gainera bota zuen aretxabaletarrarena.

Liburuaren amaieran euskaldunok bere ustez herri gisa eman beharreko pausoez mintzo da eta liburua eraikuntza nazional horretarako ekarpen gisa besterik ez daiteke uler. Dudarik gabe, Euskal Herriaz, botereaz, askatasunaz, terrorismoaz, hizkuntza txiki eta handien arteko ezberdintasunez, eta hauen hitzunen jarrera ezberdinez gogoeta egiteko liburu ederra. ■

Musika

Berri Txarrak: kapitalismoa euskal balioekin

Nazkatzeraino erabili dugu Zizeken txokolatezko laxantearen metafora, jabetu gabe sudur parean genuela aplikazio lokala. Sinpleki azaldua, txokolate laxantearen irudiak adierazi nahi du zerbait definitzen duen hori bera gabe eskaintzen zaizkigula produktu, jarrera edo keinu asko. Hesteak idortzen dituen txokolate zaporea du libratzen laguntzen digun botikak. Errebeldia zaporea du despolitizatzen gaituen musikak.

HEDOÍ ETXARTE

ERIC HOBSBAWM historialari marxistak zioenez, urrezko aroko “egitate politiko ikusgarriena, bereziki 1960ko eta 1970eko hamarkadetakoa, adin-klaseen mobilizazioa” izan zen. Horren ondorioz, “diskogintzak diru irabazi izugarriak sortu zituen politizazio gutxien zuten herrialdeetan”. Diskogintza hori rockari lotu zen bereziki eta aisiaren industriak “14-25 urte arteko gazteei ekoizpenaren %75-80 saltzen zien”. 80ko eta 90eko hamarkadetan punk eta hardcorearen mundutik merkatua kritikatu eta alternatibak eratu ziren *do it yourself!* eta bestelako mugimendu batzuetan. Halere, 90eko hamarkadan argi zioen Negu Gorriak: Rock&Rollaren industrian askok “atera deza-gun dirua kaosetik” zuten goiburur.

Edozein kasutan, defini ditzagun, beste aldagai nazionalen aurrean, euskal balioak lituzkeen kapitalismoaren nolakotasun batzuk. Beste garai batzuetan euskal kapitalismoa Leon XIII.aren eta kooperatibekin lotuko genuke; gaur egun, adibidez, itxurazko errebeldiarekin. Aurrez ezarritako dezibelio, hitz, itxura eta aurpegi keinu ustez apurtzaileekin performatzea eta bien bitartean Roadbroker Recordseko katalogoko talde bat gehiago izatea –zeina berez Warner Music Groupen beso bat den, 56 milioi dolar garbi irabazi zituen 2009an–. Euskal kapitalismoan, babes sinboliko moduan autoekoizpena egiten duten egitasmoak zinikoki aipatuko lirateke (“*YOU do it yourself, keep on guys beeing authentic, I prefer being radical chic and alternaVIP*”), gezurra badirudi ere, sorkun-

tzaren autonomiak, autokudeaketak eta autoeraketak eremu aberatsa izan baitu gurean, musikaren inguruan batez ere: Esan Ozenki, Metak, Talka, Bidehuts, Y las ardillas mágicas (Kerobia), Jo Ta Ke ekoizpenak, eta abar.

Balitzko euskal balioen forma bortitza da –Sadetik hona boteretsuak soilik gauza deza-ke arau-haustea, Polanski eta DSK transgresoreak dira–. “Put a Bar in!” esanaz eztarria zartatzea Nafarroa Garaiko gehiengo antiUPNarekin iraultzaileki bat egitea da (UPNko gehienak ere oso antiUPN dira). Beste ezaugarri bat hizkuntza indartzea da: euskaraz ere *star* izatea dago. Baina funtsean, uste dut apaiz gutxi proposatzen dutela gaur egun latinez egitea meza. Rockak tokian tokiko hizkuntzetan behar du izan.

**Euskaraz ere *star* izatea dago.
Baina funtsean, uste dut apaiz
gutxi proposatzen dutela gaur
egun latinez egitea meza**

Ideologiarekin jarraituz, errebeldia apurtzaileek –irritati formulen dinamiken alde– *shitty music* edo euskaraz esatearren, langileria-gehiengoak entzuten-duen-popa-eta-haien-tabernak, errotik kritikatu dituzte. Argudio musikal bat bera ere eman gabe mespretxatuko da *shitty music*-a: “noiztik da zaborra hemen dibertigarri?” Total, jabetzeko VI-VII-I, I-III-IV, II-V-I eta abarreko akorde segida berak egiten dituztela Shakirak eta Berri Txarrak, eta hitzen gama ezberdina eginda ere, bigarrenaren ukitu depresibo eta kastrantea kenduta, nahiko antzekoak direla mundu proiektuak: “Ospea edonola”. Musika aisialdia besterik ez da, denak berdin jarraitzearen aldeko tresna bat gehiago, eta, haustura birtuala antzeztean, lilura bikoitza. Batak onomatopeiak ditu, besteak “ouo”, “uoo”, “ooo”

eta sistema bokalikoaren bestelako erabilpen minimalistak.

Aitagura laxanteak, adibidez, wattioz jositako mikro batez proposatuko dio milakako masari liderrak gaizki daudela: “*leaders are very txarrak (naughty leaders!)*”. Leader anti-leaderra: txokolate laxatiboa berriz ere. Kapitalismoa italiar balioekin defendatzen duen Berlusconik ere autoritatea autoderrisioz higitzen du: “ez da egia adin-gabeko putak dioena, eta epailearen aurrean erakutsiko dut zakila tente jartzen zaidala!” (kasu ez naiz Berlusconiren erekzio-gaitasuna Berri Txarrakekoenarekin alderatzen ari). Bitartean militarrek bidaltzen ditu tren geltokietara bortxaketak ekiditeko aitzakiarekin.

Edo abestuko ditu maitemin askatzailerik gabeko maitasun kantak, “uzkia miazkatzea” iraina izango da, adibidez. Euskal balioetan gauza bat dago garbi: konpromiso poetikoa lekuz kanpo dago, eta poesiaren nozio minimoak saltatuko ditugu punk izpiritua aldarrikatuz. Ez ahaztu 90 minutuko showagatik orkestrako musikariak –edo ertzain batek– urtebetean irabazten duena eskatzea. Lantzean behin elkartasun kanta bat eginda bekatu soziala kitatuko da: karitatea, pozoia- ren dosia pixka bat arintzen denekoa.

Arazo bakarra ikusten diot kapitalismo mota horri eta da anglosaxoi ereduaren oso antzekoa dela promozio kanpainan: musikari buruz hitz egiten ez duten musikarien kasu misterioetsua. Musikari buruz baino, salgai fetitxei buruz berba egitea gurago duten musikariak. Aberats berriak haien kotxearekin nola: gitarra berria, bateria berria, teknikariaren curriculum, birako hiriak. Irudipena dut egungo pop-rocka ehungintzaren eskaparatea besterik ez dela, musika gutxienekoa dela.

Euskaldunon kontsumo ohiturak aldatzeko tenorean, oroitaraziko zaigu ez dugula ideiarik musika anglosaxoiaren azken 30 urteei buruz –musika orduan eta han hasi zen–. Umiltasu-



DANI BLANCO

Berri Txarrak taldea, 2009ko argazki batean.

na, beraz, eta autokritika, jainko ateoak zatzaizkigutela mintza. Ezjakintasun subordinatutik, onartzen dut hamarkada batez izan naizela Berri Txarraren zalea. Edozelan, ez nituen gertu musikaren analisia eta afera ekonomikoaren bisturia. Gaur, badakigu ez dagoela korrelazioarik Harkaitz Canoren arte ekoizpenaren eta zabalkundearen artean. Presentzia musikalean presentzia literarioan gertatzen den antzekoa gertatzen da, prentsa musikalaren nolabaiteko *omertá* susmagarri batekin: ez dago iragazkirik. 2005ean Asier Leozek Laboaren *Xoriek 17*ri egin kritikatik ez da disko txar bat egon euskal musikan, denak izan dira hobeak, bereziagoak, landuagoak, nazioartekoagoak. Deshazkundearen teoria ez aplikatu pop-rockaren industriari.

Errendizio sozialen garaian ez ginatke prest izan beharko askatzailerik ez diren produktuak askatzailatzat jotzeko. Tenore onean Willis Drummond entzuten jarraituko dut inongo *Epic problemik* gabe. Ez dugu “musikarekiko” errespetua eskatzen duten izarren karitatea behar. ■

EUDEL

EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

Zabalgune Plaza, 5
48009 Bilbao
☎ 94 423 1500
Faxa: 94 424 3947
eudel@eudel.net

www.eudel.net

Diskoak

IKER BARANDIARAN

Mimoz egitea da beti bereizgarri nagusiena



Amaiera hasieran dator.
Sermond's.
Mauka.
Iraupena: 33'44".
10 euro.

ELORRIO ETA DURANGOKO KIDEAK dituen talde hau lozorroan egon da aspaldi luzean, baina indartsu itzuli da. Hain zuzen ere, teorian hain jorratua izan den punk-rock eta rock-and-rollaren baitan, gai izan dira kanta on eta irudimentsuak egiteko, abesti batek behar dituen ezaugarri guztiak bildu eta borobiltzeko. Diskoak Eskandinaviako taldeen arrasto nabarmena du, bai, baina baita Australiako taldeena eta CBGBkoena ere, besteak beste. Errit-

mo bizia du, kutsakorra, gitarra landuak, nortasuna du ahotsak eta melodiak ere ez dira edonolakoak. Gainera, gai dira pose rockeroaren baitan euskaraz eta ingelesez hurbilekoak egiten zaizkigun gaiak abesten. Guztia asmatuta dagoela diotenen aurrean —arrazoia badute ere— jartzeko adibide xume, baina benetan eraginkorra; lanak ondo egin daitezkeelako.

www.myspace.com/sermonds

Gorka Muñoz - Sermond's

«Baliteke beste talde rockero batzuk etiketekin arduratzea, baina gu ez»

Disko honetan, besteak beste, desarrollismoaren kontra eta Jon Antzari gertatutakoa salatzeko hitzak idatzi dituzue. Ez gaude ohituta punk-rock-and-roll taldeetan pose rockerotik haragoko hitzak entzuten...

Guk betidanik bi arima ditugu: bata, parranda, ondo pasatzea, neskak eta probokazioa batzen dituen; eta bestea, gazteak eta euskaldunak gara. Hortaz, guk salaketa egiteko aukera ez dugu galdu nahi; azken finean, gure musika gure bizitzaren isla delako. Kantak idazterakoan ez gaitu arduratzen zer hartzaile izango dituen. Baliteke beste talde rockero batzuk etiketekin arduratzea, baina gu ez.

“Heriotza hurbilegi, azkarregi dator”. Sermond's-en aritzea da bizitzari azken tanta ere ateratzeko modua?

Egia esanda, taldeko nagusienak Inigo eta biok gara eta badugu sentazioa, neurri batean Sermond's



gure azken aukera dela. Hau da, ez dugu aberastea amets, baina umiltasunez talde honek nolabaiteko oihartzuna izatea nahiko genuke eta horretarako lanean gogor ari gara. Izan ere, astebururo jotzen aritzea eta kontzertuetan guztia ematea ez

da bizi guztian egin ahal izango dugun zerbait; nahiz eta musika beti egingo dugun.

Rock-and-rola ez da, bada, funtsean tximinoarena egitea?

Bai. Rock-and-rollari esker barruan dauzkagun alderdi primitiboak askatzen ditugu, bide hori ematen du. Kontrakoa uste badugu ere, azken finean guztiok gizarteko arauen barruan mugatuta gaude.

Zer eskaini diezaioke Durangaldeako lagun talde batek punk-rock-and-rollari?


Ez dakit, ia guztia eginda dagoelako. Euskal Herrian oso moda-zaleak gara, eta

2000aren bueltan Hellacopters, Turbonegro eta antzeko taldeek oihartzuna izan zuten, gerora isildu den arren. Guk, agian, musika ildo hori gure artean berpiztu egin dugu, nahiz eta bestelako estilo eta taldeak ere entzuten ditugun, jakina. ■

Ezpalak

JON TORNER

‘Monzon’ pastorala aurkeztu dute larraindarrek



TELESFORO MONZON (Bergara, 1904 - Baiona, 1981) euskal idazle eta politikariari buruzko pastorala prestatu du Larraineko (Zuberoa) herriak. Jean Bordaxar kantariak idatzi du antzezlan eta 200 herritarrek parte hartuko dute era batera edo bestera emanaldietan: 97 aktorek, hamazazpi dantzarik, hamalau musikarik, hamabi jantzi egilek eta 100 laguntzaile inguruk (ostatu-

tuan, aparkalekuan...) Abuztuaren 7an eta 13an antzeztuko dute pastorala Larrainen. Aurten, Monzon heriotzaren 30. urteurrena dela-eta, Bergaran ere eskainiko dute pastorala irailaren 13an. Maskaradak bai, baina azken 20 urteotan Larrainen ez da pastoralik egin, gaur arte.

Astiberri argitaletxe bilbotarra eta Josep Maria Berenguer Bartzelonako La Cupula argitaletxeko zuzendaria omenduko ditu Getxoko (Bizkaia) Komiki eta Manga Azokak 10. edizioan. Astiberri argitaletxea 2001ean sortu zuen Fernando Taranconek. Berenguer (argazkian) 1944an jaio zen Bartzelonan. Arte Ederrak ikasi zituen Stockholmen eta 1979an *El Vibora* aldizkaria sortu zuen Josep Toutainen babes ekonomikoarekin. Getxoko Komiki Azoka azaroaren 25etik 27ra egingo da.



Oskorri taldeak “Frantziako Iraultzan galdutako dantza zahar birmoldatuak” jaso ditu *Dantza kontra dantza* CD-DVDan. Joan Ignazio Iztuetak (1767-1845), 1789ko Frantziako Iraultzaren eraginez galdutako Gipuzkoako dantza zaharren inguruko berriak eta doinuen partiturak bildu zituen. Orain, Oskorri dantza-doinu horietako batzuk prestatu eta, Baztango Dantzariak taldearekin batera, jendeak erraz dantzatzeko moduan birmoldatu ditu: mutxikoak, jauziak eta mutil-dantzak.

publizitatea

Gidabaimena euskaraz ateratzeko aukera

Euskaraz badu halako punttu bat lelopean Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, Herrizaingo Saileko Trafiko Zuzendari-tzarekin batera, gidabaimena euskaraz ateratzeko ekimena aurkeztu berri du.

Gaur egun gero eta aukera handiagoa dago euskaraz erabiltzeko bizitzaren edozein arlotan, esaterako B motako gidabaimena eskuratzeko garaian. Puntu honetan ere gauzak aldatu dira eta, nahi izanez gero, orain aukera eskaintzen da gidabaimenarekin batera datozen puntu guztiak prestakuntza teorikoa zein praktikoa euskaraz eskaintzen dituzten autoeskoletan jasotzeko.

Guztira, 52 autoeskola sartu da ekimen berri honetan: 25 autoeskola Bizkaian, 26 Gipuzkoan eta, oraingoz, bakarra Araban. Dena den, laster batean lurralde honetan ere zerbitzu hori eskainiko duen autoeskola

gehiago izateko itxaropena dago. 52 autoeskola, 94 eskola ezberdinetan banatuta.

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako sailburorde Lurdes Auzmendik aurkezpen-egunean esan zuenez, “euskararen erabilera gizartearen alor ezberdinetara hedatzeko ahalegin horretan, gure aspaldiko nahia zen, nola ez, gidabaimena euskaraz ateratzeko aukera eskaintzea gure herritarrei. Orain, ehunka, milaka gaztek eta ez hain gaztek ere azeleragailua euskaraz zapaltzeko aukera izango dute”.

Autoeskola horietan, besteak beste, ikasleak eskura izango ditu: trafikoaren araudia euskaraz eta multimedia programa erakargarri bat eta azterketa eguneratuez osatutako CDa. Horrez gain, test moduko 600 galdera aurkituko ditu euskaraz eta, jakina, propio prestatutako irakasle euskaldunak.

Ihesi


Testua eta argazkiak:

AMAIA ETA EDURNE GARTZIA

Menorca

Kalaz kala bizikletaz

Sekulako astindua hartu gabe bizikletan lasai ibiltzea atsegin dugunontzat, irla aproposa da Menorca. Egunean 30-50 kilometro artean eginda, laster zeharkatzen da Balearretako uhartea, eta paraje ederrez gozatzeko aukera paregabea eskaintzen du.



BIZIKLETAZ GAIN, oinez, kayak-ean edo katamaranean zeharkatzeko ere irla egokia da Menorca. Halako txangoak eta urpekaritza edo surf saioak antolatzen dituzten agentzia ugari daude uhartean, eta gehienetan harremana dute beraien artean. Gu iparraldean dagoen Fornells herriko agentzia batera jo dugu eta e-posta bidez alokatu dugu bizikleta. Nahi izanez gero, kaskoa, kanpin-denda eta bestelako materiala ere alokatu daiteke —etxetik eraman ditugu guk—, baina alforjak norberak eraman behar ditu.

Hondarribian hegazkina hartu eta Madrilen geldialdia eginda, ordu pare batean Maóra iritsi gara, Menorcako hiriburura. 30 kilometro ingurura dagoen Fornellsera autobusean egin dugu bidaia. Abiapuntuan gaude dagoeneko, eta komeni da hurrengo egunerako deskantsatzea.

1. etapa: Fornells-Ciudadella


Hurrengo goizean, agentzian agertu gara 9etarako. Ezusteko atsegina hartu dugu, oso bizikleta onak eskaini baitizkigute, baita oso ondo etorriko zaigun material osagarria ere. Alabaina, ibilbide eta mapa argigarrien ordez, aholkua baino ez dugu jaso: “Itsasoa beti eskui-nean utziz, ez dago galtzerik”. Bidea bizikletaz egiteko ez dela zaila eta edozein kalatan zakua atera eta lasai lo egin daitekeela azaldu digu agentziako arduradunak. Hasteko, informazio horrekin moldatu beharko gara.

Pisua bizikletan ondo orekatu eta Ciudadellarantz abiatu gara, mendebalderantz. Hasi eta berehala, bidearen nondik norakoak azaltzen dituzten seinaleak ikus daitezke. Irlari kostaldetik bira ematen dion Camí de Cavalls bide ezaguna ondo seinaleztatuta dago eta ibilbide horri ekin diogu. Xendan barrena, zaldi gainean doazen turista ugari topatu ditugu; ez da hautu txarra. Lehenengo etapa honetan bideak dituen malda, arroka eta pareta gogorak aise gaunditzen dituzte zaldiek, baina ez guk daramatzagun bizikleta astunek. Hala ere, gogotsu hasi gara, sei orduz ibili gara gora eta behera, eta aldaparik latzenetan, txirrinda bakoitza bien artean igo behar izan dugu. Lehen etapan ez dugu iturririk aurkitu eta ura agortu zaigu.

Kalatxo batera iritsi eta ueste baino atzerago gaudela ohartu garenean, nekatuta, urik gabe eta sasiek hankak zartatuta, gizon bat hurbildu zaigu. Txabola baten jabe da, kala ondoan. Ur freskoa eskaini digu, esertzeko

Kalaz betetako uhartea da Menorca. Ezkerreko irudian, Cales Coves (irla hegoaldean). Eskuinean, mendebaldeko kostaldea: Cala Santandria, Cala Blanes eta Cala Blanca.

tokia eta elkarrizketa bikaina. Argitu digu lehenengo etapa zaila dela bizikletaz egiteko, normalean errepidez egiten dela eta aukera dugula bizikletentzako bidera atera eta berau jarraituz Ciudadellaraino jarraitzeko. Gure kanpin-denda ikusi duenean, kanpaldi librerik ez egiteko gomendatu digu. Debekatuta omen dago irlan, eta poliziak maiz begiztatzten ditu kalak, hondartzak eta basoak, horietan kanpatzen dutenei 300-600 euro arteko isunak ezarriz. Zertxobait beldurtuta, laguna agurtu eta berriz ekin diogu hankak astintzeari, asfaltoa zapaltzeaz pozik. Bide berritik, azkar iritsi gara helmugara.





Herri polita da Ciutadella, kostaldean. Portua txikia eta ikusgarria da, garai bateko trazarak mantentzen dituen. Oraindik kezkatuta, herriko gazte batzuei galdetu diegu eta denak ados daude: guztiz debekatua eta kontrolatua dago kanpaldi libre. Egitekotan, hegoaldean dauden kalatxo bakartiren batean probatzeko aholkatu digute, baina ez, noski, Ciutadellan. Beraz, ondo afaldu eta hotelean igaroko dugu lehenengo gaua. Aurretik turismo bulegora joan eta ohartu gara bizikletentzako bidez josita dagoela uhartea. Hala ere, Camí de Cavalls-i beste aukera bat ematea dugu buruan.

2. etapa: Ciutadella-Cala Mitjana

Zaldien bide deiturikoari ekin diogu bigarren etapa honetan, hegoaldean dagoen Cala Son Boura ailegatzeko asmoz. Oraingoan ere primerakoa da seinaleztapena, inongo arazorik gabe jo dugu aurrera, eta gainera ez dugu aurreko eguneko aldaparik izan. Hondartzan geratu eta ur gardenetan bainu ederra hartzeko parada eskaini digu ibilbideak.

Bizikletatik kayakera

Euskal Herrira itzuli aurretik, Menorcako ur gardenak aprobeztatu ditugu. Fornellsen kayak pare bat alokatu eta itsasoratu gara, badian barrena. Zakar samar dago itsasoa, haize bolada bortitzak izaten baitira Menorcan, baina esperientzia atsegina izan da. Urpekaritzarako tartea ere hartu dugu: bataioa izenekoa probatu dugu, lehen aldiz bonbonarekin urperatzea. Hozberak garela esan eta hiruna neopreno jarri dizkigute! Bizkarrean 18 kiloko aire-bonbona hartu, hondoratzeko gerri bueltan pisu batzuk zintzilikatu eta uretan barneratzen lagundu digu monitoreak. Sei bat metro behera murgilduta, ikusgarria da begien aurrean duguna, kolore biziko koral, arrain eta alga artean.

**Denetarik ikusi dugu:
amildegi zirrarragarri
dun inguru menditsua iparraldean,
arrokek eta landareek hartutako
bista lauagoa hegoaldean,
hondartza zoragarriekin**

Arratsalde partean ohartu gara mendi bidea jarraitzeak gauza txar bat daukala: ez dugu nahi beste aurrera egiten. Camí de Cavalls ibilbide polita da oso, eta gogor dabil-tzan eskarmentudun txirrindularientzat apro-posa, baina alforjekin eta gure mailan ibiltze-ko egokia ez dela erabaki dugu.

Bideari agur esan eta bizikletentzatzat prestatuta dauden besteetan barrena murgildu gara. Txirrindulari ugariekin egin dugu topo ibilbide hauetan. Lasaia eta erritmo onean, Cala Galdanara iritsi gara. Hotelak, tabernak, jatetxeak, turistek zuzendutako zerbitzuak... Denetarik du leku honek. Orokorrean, ondo zain-

duta dago Menorcako kostaldea, itsasertzean ez dago eraikin handirik edota hondartzaraino sartzeko apartamenturik, baina herri hau salbuespena da, esplotatuta dago turistekoki, eta irlako jendea kritikoa da horrekin. Ogitarkeko pare bat erosi eta Cala Mitjanara segitu dugu. Hor pasako dugu gaua.

Gertu dago kala, baina ez da bertaraino errepiderik iristen, eta kanpatzeko leku egokia dela esan digute. Ilundu duenean hurreratu, alforjak desegin, ahal dugun moduan gure burua garbitu eta gauean etzateko toki onena bilatzen ari garela, gose diren lagun berriak ezagutu ditugu, kaioak. Ohartzerako, ogitarkekoen poltsa irekitzea lortu dute mokoka. Afaria berreskuratu eta hondartzan egokitu garenean, bi pertsona iritsi dira kayakean. Beraiek ere euskaldunak dira eta kala honetan bertan egingo dute lo. Solasaldi animatua izan dugu, elkarren abenturak kari. Bizikleta, kayak eta kanpin-dendaz inguratuta, gure egin dugu hondartza. Gaur bai, izarrei begira hartuko dugu lo.

3. etapa: Cala Mitjana-Maó

Hirugarren etapan bizikletentzako prestatuta dauden ibilbideetan barneratu gara zuzenean.



Irla zaldiz zeharkatzen duen jendea ikustea ohikoa da (ezkerreko orrialdeko lehen argazkian, Tirant kalan, iparraldean). Erdiko bi irudietan, Camí de Cavalls, bereziki aldapatsua batzuetan. Esquinean, Alaior herriko kaleetan barna.

Gustura ibili gara, erosoak izateaz gain ondo adierazita daudelako eta tankera ezberdineko xendak zeharkatzen dituztelako, mendi aldekoak batzuetan, pistakoak bestetan, errepide-tik hainbatetan. Gainera, Menorcako txoko interesgarri askotatik pasatzen da.

Bezperan ezagututako lagunen aholkuei jarraiki, Cales Coves-era gerturatu gara eta ez gara damutu. Itzela da kala, pareta bertikalez eta kobez josia. Aparteko txoko honetan bazkaldu dugu, bakarrik, eta bidaia abiatu dugu ondoren, hiribururantz. Goiz heldu garenez, arratsalde osoa izan dugu Maó bisitatzeko. Hiri atsegina da, etxe txikiz eta denda ugariz jantzia, eta alde zaharra da, dudarik gabe, txorik ederrena. Erdi Aroko etxe burgesez, eraikin historikoz eta komertzio txikiz josia, porturaino eraman gaituzte bertako kaleek. Ostatu eskaintza zabala da, prezio merkean, eta horietako bat hautatu dugu gaur lo egiteko.

4. etapa: Maó-Fornells

Bira guztia eginik, hasierako puntura bueltatuko gara laugarren etapan. Bezperan egin

bezala, bizikletentzako bideetan jarraitzea erabaki dugu. Kasu honetan, gainera, Camí de Cavalls Albuferako Natur Parketik igarotzen da eta debekatua dago bizikletaz ibiltzea. Hortaz, Zaldien Bidea aukeratzen duten txirrindulariek jakin dezatela azken zati honetan bizikletatik jaitsi eta oinez burutu beharko dutela Parkea zeharkatzen duen tarte. Guk, txirrindularientzako ibilbide anitz eta erosoetatik, beste behin ere Menorcako paisaia atseginez gozatuz amaitu dugu ibilbidea. Hedadura txikiko irlan (702 kilometro koadro), denetarik ikusi dugu: amildegia zirrargarriaren inguru menditsua iparraldean, arrokek eta landareek hartutako bista lauagoa hegoaldean, hondartza zoragarriekin.

Zailtasun maila ezberdineko ibilbide ugari dituen, norberaren prestakuntza eta gogoen arabera bidaia mota antolatzeke aukera ematen du balear uharteak. Guk behintzat, gure neurrikoa atondu dugu, askatasun osoz ibili gara irlan, eta kale nahiz hondartzetan lasaitasuna eta bakea aurkitu ditugu. ■

Chacun a ses préférences.
Bakoitzak Norberak bere lehentasunak dauka.

Itzulpen eta zuzenketa zerbitzu profesionala
FRANTSESA | EUSKARA | GAZTELANIA | INGELESA | ALEMANA

11itzulpen
www.11itzulpen.com

Azpea
NAVARRA
Denominación de Origen

ARDO EKOLOGIKOAK

Lumbier (Nafarroa)
www.bodegasazpea.com

SOLOZABAL
Eskura ezazu teorikoa 5 egunetan
edozein gidabaimenerako

- IKASTARO INTENTSIBOAK
- CAP IKASTAROAK
- ADR IKASTAROAK
- GARRAIOLARIEN LANBIDE-TREBAKUNTZAKO IKASTAROAK

☎ 943 217 390
www.solozabalautoeskolak.es

ANA ZAMBRANO

Gaia: Gaztagintza



Kike Amonarrizen umorea

	P	A	T	H	L
D	E	B	R	K	I
	T	R	N	P	A
G	T	X	I	A	R
M	A	Z	U	D	A
	Z	L	R	R	O
P	S	I	B	O	T
	K	A	I	K	U
H	A	S	A	N	T
N	A	I	E	S	N
M	A	L	T	A	A
S	U	T	A	N	G
					I
					A



Aktualitatearen alde ezberdinak
konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Matematikak eta hizkuntzek, antzeko arauak

EGUNERO IKASTEN DITUGUN hitzak edo esaldiak memorizatzea ezinezkoa da, urtero milaka baitira. Nola, bada, unea ailegatzean gai gara hitz edo esaldi berri hori ahoskatzeko bat-batean?

Eskoziako Glasgow eta Edinburgoko Unibertsitateetako dozena erdi bat ikerlarik hainbat proba egin dute esaldien eta matematikaren egiturak alderatuz, eta diotenez oso lotura estuak topatu dituzte bi alorren artean.

Ikerlariak “azpiegiturazko baldintzatua” izeneko ezagutza-prozesu bereziaz baliatu ziren. Hitz gutxitan esanda, esaldi batean egitura mota bat erabiltzen bada, oso erraza da egitura hori hurrengo esaldi batean ere erabiltzea.

Beraz, egiturak dira buruan gordetzen direnak, matematiketan ekuazioen egiturak memorizatzen diren bezala. Gero, hitzak edo zenbakiak buruan gordeta ditugun egitura horietan txertatzen dira.



Eta Fukushima zer?

EGUNGO JENDARTEAN, berriek iraupen txikia izaten dute albistegietan, eta gertatutako lekuetan diraute bakarrik.

Lau hilabete pasatxo igaro dira Fukushima gertatu zena gertatu zenetik eta denbora daramagu bertako berri askorik gabe (salbuespen bat, ale honetan bertan esaterako, ARGIAren Net Hurbil atala da). Errealitate bikoitza gertatzen ari dela iruditzen zait.

Batetik, Lapurdiren tamainako lurralde bat hutsik dagoen bitartean inguruko lur-eremuetako pertsonak, lurrak eta animaliak kontrolatzen ari direla badakigu, baina inguruko itsas-uretan gertatzen ari denaz ez dakigu ezer ere. Hemendik urte batzuetara jakingo dugu hor egositakoa.

Bestetik, Fukushima zentrallean geratzen ari dena ere ezezaguna da; hobeto esanda, saiakuntza-eremu bihurtu da, sekretua noski, eta hortik aterako denak mundu osoko energia nuklearraren negozioaren etorkizuna jarriko du jokoa. Hondamendia izan daitekeen bezala (beste leherketa bat, beste ihes erradioaktibo bat...), arrakasta itzela ere lortu daiteke (erradioaktibitatearen nolabaiteko kontrola...).

Energia nuklearraren lobbyak datozen hilabeteetan ustekabekoren bat eman nahi izango digula ziur nago.



THE HINDU

Asko falta zaigu oraindik mundua guztiz ezagutzeko

Bost kontinente daudela eta itsasoetan zulo sakonak eta mendi altuak daudela jakin badakigu, baina teknologiak aurrera egin ahala, nagusiki itsasoan, aurkikuntzak egiten ari dira: lurrazpiko ibaiak, sumendiak...

<http://ttiki.com/30426> (Frantsesez)

Zulo beltzen jatorriaz

Galaxia gehienetan, guztietan ez esatearren, gure eguzkiaren masa baino milaka milioi masa handiagoa bereganatzen duten zulo beltzak izaten dira. Oso egonkorak dira, baina batzuetan aktibitate-zantzuak ikus daitezke.

<http://ttiki.com/30427> (Frantsesez)

Tximinoengandik gizakiarengana igarotako adenobirusa

Adenobirusak espezi beraren barnean aritzen zirela uste zen. Katarroak edo pneumoniak gizakiarengan sortuak eta kutsatutakoak zirela uste zen. Baina Kalifornian hemeretzi tximino hil dira, eta beraiekin ikerketak egiten ari zen ikerlari bat eta honen senide bat kutsatu dira. Dakigula behintzat, animaliek eta gizakiek elkar kutsatzen duten lehen aldia izan da.

<http://ttiki.com/30428> (Frantsesez)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Sexuaren miraria

EZ DA LAN MAKALA arrosa berri bat sortzea. Dirua dela-eta, hartu eta burutu egiten den lana da. Honegatik jartzen zaio gero “William Shakespeare”, “Julio Iglesias”, “Pink Panther”, “The McCartney Rose”, “Leonardo da Vinci”, “Michelangelo”, “Rodin”, “Lilli Marlene”, “President Macià”, “Tchajkovski”, “Gina Lollobrigida” edo “Louis de Funés” bezalako izena; ezaguna eta sortu ordurako erantsirik darama sona. Haiek gogotik saiatuta eskuratu zutena arrosagileak di-da. Txarra edo ona, sona. Sona eta txanpona. Alde ederrekoak jarri daitezke, baina arrosa dotoreari jende itsusi horren izenak txanpona...

Izena eman aurreko lanik bada, baina, arrosagintzan. Arrosa berriak sortzeko lehendik baditugun arrosak nahastu beste biderik ez dago. Nahaste honek dakar hibridoa. Hibrido berria lortzeko eme eta ar jakinak gurutzatuz ondutako haziak behar dira. Hauek erein eta, genetikaren aita izan zen Mendelek zioenaren arabera, heren banako hiru multzotan bil ditzakegu jaioko diren landareak: batzuk amaren antzekoak, beste batzuk aitaren gisakoak eta hirugarrenak nahas-mahasekoak. Azken hauek dira interesgarriak, bai arrosagintzan aberastu nahi dutenentzat, bai natura berarentzat ere. Ez aitaren itxurako, ez amaren taxuko ez diren horiek garatuko dituzte, agian, ordura arte espezie horrek izan ezin izan dituen tankeretako ezaugarriak. Arrosetan, adibidez, usain berriak, eite ezezagunak, lore-kolore deigarriak, itzelezko emankortasuna...

Aldaera berri batek espezieari egundoko mesedea dakarkio, etorkizunerako bidea zabaldu eta iraupena errazten dio. Zenbat eta aldaera ugariago, datorrena datorrela, ikuskizun dauden etorkizuneko bihurrikeria eta komeria, zaharra ez den edozein berrira edo mudantza ekologikora egokitzeak aukera gehiago. Naturak badaki, nahastean dago gaurko etorkizuna, etorkizun oparoa.

“Miracle” arrosa. Arrosagileak, lore baten alde arraren polena ireki gabeko beste lore baten emeari eskuera jarriko dio, eta beste inongo arraren polena etortzeko bidea erabat itxi. Emeak emango duen fruituko haziak erein eta mirarizko ezustekoa noiz gertatuko, aiduru egongo da artista. Gero, jarriko zaio izena... Herbereetako Aalsmeereko G.Verbeeckek 1958an kaleratu zuen arrosa eder bati jarri ziona bezala: “Miracle”.



Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba. *Celosia argentea* var. *plumosa* izeneko landarea oparitu didate, argazkian ikus daitekeena bezalakoa, eta besterik gabe jakin nahi nuke ea zer egin behar dudana hura modu egokian zaintzeko.

Maritere Gonzalez (Berango).

Iepa Maritere. Dotorea da bai zelosia landarea. Kolore biziko loreak ematen ditu. Gauza bakarra du “txarra”, urteko landarea izatea. Motzatxo!

Landare hau lurralde tropikaletatik dator, beraz hango ingurunea imitatzen saiatu behar zara, loraldia ahal den gehien luzatze aldera.

Argi asko dagoen toki beroan jarri, eguzkitsua bada hobe. Lurrari busti eutsi maiz-maiz ureztatuz eta tarteka bere ingurua ihinztargailu batez hezetu. Argi aire korronteekin eta hotza, ezta hitza aipatu ere!

Lore deigarri horrekin bi aukera dituzu: ihartzen hasi ordurako moztu eta lehor mantendu, koloreari ederki eusten baitio, edo bere bidea egiten utzi eta agian haziak emango ditu. Hurrengo udaberriaren atarian hazi horiek erein eta landare berriak ekartzea erraza da.



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

LIZARRALDE SOINUA TXALAPARTA, S.L.



SOINU PROFESIONALA
EREMU HANDITARAKO
MEGAFONIA



Tel. / Faxe 943 226 977 • txala@txala.euskalnet.net • 01012 GASTEIZ

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Ordaindutako oporrak guztientzat

EUSKAL HERRIKO MEATZARITZAREN MUSEOA



Bizkaiko burdin meatzetako langileak XIX. mendearen amaieran. Urte horietan hasi ziren Ingalaterrako industriako zenbait langile ordaindutako oporrak izaten. Hona beranduago iritsi ziren.

LONDRES, 1871. Parlemantuak Bank Holidays Act delakoa onartu zuen; horren arabera, bankuentzat lau jai egun ezarri ziren egutegian. Lanaldi luzeak murrizteko borrokan ari ziren sindikatuak lege berria baliatu zuten industriako langileentzat ere opor egun horiek eskatzeko. Hitzarmen kolektibo jakinetan eskaera onartu zen, eta, hala, 1872an zenbait fabrikatoko langileek opor ordainduak izan zituzten lehenengoz, lau egun solte besterik izan ez baziren ere.

Hurrengo urtean, errege dekretu baten bidez, Alemaniako funtzionarioek lortu zuten opor ordainduak izateko eskubidea. 1900ean Parisko metroko langileei ordaindu zizkieten oporrak eta, 1907an, Frantziako meatzariei. XX. mende hasieran aurrerapen handiak egin ziren zentzu honetan, batez ere Europa erdialdeko herrialdeetan. Baina eskubidea zenbait kargu, enpresa edo sektoretara mugatuta zegoen, eta horrek, finean, langileen arteko desberdintasunak areagotu egin zituen.

Herrialde osoko langile guztiei eragiten zien oporrei buruzko lehen legedi orokorra Islandian onartu zuten 1909an. Urtebete geroago Austria-Hungariak bi aste gutxi-

neko oporraldi ordaindua ezarri zuen. 1920an, Nazioarteko Lan Bulegoak Langileen Astialdiari buruzko Nazioarteko I.JHK,G Kongresua antolatu zuen. Eta handik aurrera, oporrei buruzko lege orokorrak errenkan etorri ziren: 1922an SESBn, 1927an Italian...

Espainiako Errepublikako 1931ko Konstituzioak astebeteko opor ordainduak izateko eskubidea jaso zuen 46. artikuluan. Baina ez zegoen bermatuta hori praktikan beteko zenik, eungo konstituzioak etxebizitza eta lan eskubideak bermatzen ez dituen bezala. Frantziako gobernu ezkertiarrek 1936ko ekainean ezarri zuen eskubidea eta, praktikan, Espainian baino askoz ezarpen zabalagoa izan zuen.


Bigarren Mundu Gerra amaituta, 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak pertsona orok atsedererako, astialdiaz gozatzeko eta ordaindutako oporrak izateko eskubidea duela jaso zuen 24. artikuluan. Mendebaldeko herrialde gehienetan oporraldia lau aste ingurukoa da; Singapurren, esaterako, zazpi egunekoa besterik ez; baina herrialde askotara industrializazioa ez da iritsi, eta, beraz, opor ordainduak ere ez.

Arrastoak

Futbol araudirik zaharrena enkantean saldu dute

SHEFFIELD klub britainarra 1857an sortu zen eta, hala, munduko futbol elkarerik zaharrena da. Orain arte bere esku izan du gordetzen den futbol araudirik zaharrena, 1858ko eskuizkribua. Baina, kluba finantzatzeko, pieza Sotheby's enkantetxeari eman zion eta bertan saldu dute berriki, 900.000 liberaren truke. Dokumentu horrek futbol modernoaren hainbat arau ezarri zituen, esaterako, kornerra eta ateko langa, handik aurrera futboleko atek errugbiko ateetatik bereiziko zituen.

1859an, sortu eta urtebetera, araudia inprimatu zuten (argazkian), eta inprimaki horren faksimileak ere salgai ipini ditu klubak, orijinala baino askoz merkeago. Kopia www.sheffieldfc.com helbidean eros daitezke 9,90 libera ordainduta.



WWW.SHEFFIELDFC.COM

Juan Karlos Izagirre

«Ez ditut ulertzen distantzia hartzen duten alkateak»

Odon Elorzaren 20 urteko agintaldiari amaiera jarri dio Donostian Juan Karlos Izagirrek. Mediku honek “herritarrendandik gertu” dagoen alkatea izan nahi du. Ezkerreko politikak eta euskararen aldeko neurriak hartzeko prest azaldu da. Azken hauteskundeetako sorpresarik handienetakoa izan da, eta egun, Bilduren aurpegirik ezagunenetakoa da.

Testua eta argazkiak:

LANDER ARBELAITZ

Nola definituko zenuke zure burua?

48 urteko igeldotarra, medikua, nahikoa saltsatan ibilitakoa, politikaz kezkatua baina ez politikaria. Nahiko sentibera gai sozialekin eta mundu honetan dauden injustiziekin orohar.

Nola daramatzazue hauteskundeak irabazteak dituen ondorioak? Gainean duzuen lupa adibidez.

Lupa lehendik ere bagenuen, orain ez dakit zenbat ditugun gainean. Irabazi genuenean garbi genuen gobernatu egingo genuela. Batzuek bertigo aipatu izan didate, baina ez. Babestuak sentitu izan gara beti. Programarik onena daukagula badakigu, politika egiteko beste modu bat egin daitekeela erakuts dezakegula.

Zer diozu Odon Elorzaren kudeaketaz?

Nik Odon Elorzaz nahiko ongi hitz egiten dut. Hiriaren alde lan egin du. Bere hiri proiektua eta gurea ez datoz bat, baina konbentzimenduz egin izan du lan hiriaren alde, eta hori eskertu behar zaio. Gertatzen dena da, hainbeste urte boterean egoteak arriskuak dituela, eta agian akats egin du hiria berea zela pentsatzean. Asko pertsonalizatu du. Bere joerak eta hiritarrekin zuen tratamendua azken urteetan aldatu egin dira. Politikari batek behar duen eskuzabaltasunik ez du eduki, azken urteetan behintzat. Orokorrean, uste dut bazela garaia aldatzeko.

Nolakoa behar du alkate onak?

Irekia. Hiritarrak etortzen direnean harrera esku zabala egin eta entzun egin behar die. Ez ditut ulertzen distantzia hartzen duten alkateak. Eurak leku batera iritsi dira eta herritarrak beherago geratzen dira.

Bertso batekin hasi zenuen agintaldia.

Iruditzen zitzaidan modu polita zela agintaldia has-



teko. Ni ez naiz bertsolaria, baina egia da bertsoak noizbehinka idazten ditudala. Urtebetetze, agur eta abarretan. Gure kulturaren arlo oso polita da. Egun oso berezia zen gainera hura, historikoa, eta bertsoa tokatzen zen. Momentu berezietan bertso joera hori badudanez, horrela hasi ginen: euskaraz eta euskal kulturaren parte horrekin.

Euskararekiko afektibotasun handia ikusten zaizu. Zein da zure harremana hizkuntzarekin?

Nire ama erdalduna da eta familian gurasoekin askotan gazteleraz hitz egiten dut. Egia da, halere, momentu honetan, nire emaztea eta nire familia politikoa euskaldunagoa dela erdalduna baino. Gure ustez Donostia hiri euskalduna izan da beti, nahiz eta azken urteetan galdu. Apustu egin dugu berreskuratzeko. Naturaltasun osoz hitz egiten dugunez euskaraz etxean, lagunartean edo beste zirkulu batzuetan, erakutsi nahi dugu udaletxean ere adibidez berdin egin daitekeela. Eskubidea izan, badugu lehendik ere, baina guk praktikara eraman nahi dugu.

Zerikusirik izan dezake euskararekin duzuen diskurtsoak "Donostia alkate berriarekin baserritarragoa izango da" (Ramon Jauregui) eta halakoak entzun behar izatearekin?

Euskara eta baserritar mundua lotzen dituztenek ez dute kalifikazio gehiegi behar. Diskurtso alarmista horren barnean erabili duten beste elementu bat gehiago da. "Bildukoak datoz eta Erdi Arora itzuliko gara". Normalean barregura sartzen zait halakoak entzutean eta iruditzen zait jendearen gehiengoak hala ulertzen duela. Edozein euskaldunek, edo euskaldun izan gabe Euskal Herrian bizi denak, edo munduko beste puntan bizi arren dibertsitatea eta txikitasuna maite duenak, defenditu egin behar du euskara. Eta, zeinek defendituko du euskara guk baino hobeto?

Zer aldatu nahi du udal gobernu berriak datozen lau urteotan?

Batetik, politika egiteko modua. Hau azken urteotan goitik behera egin izan da, politikarien, enpresarien eta banketxeetako jendearen bulegoetan erabakita. Informazioa

eta parte hartzea ahalbidetuz, demostratu nahi dugu politika egin daitekeela behetik gora ere. Bigarrenik, ezkerreko politika egitera gatoz. Gutxieneko eskubide kontsideratzen ditugunak defendatuko ditugu. Hirugarrenik, euskara eta euskal kultura. Guk bultzatzea behar dugu euskara. Hemen munduari erakutsi daitekeen kultura bat dago.

"Edozein euskaldunek, edo euskaldun izan gabe Euskal Herrian bizi denak, defendatu behar du euskara"

Krisi garaian gaude. Murrizketak egin beharko dituzue.

Bai, arlo askotan. Era nabarmenean, porlanean inbertsioa jaitziko dugu eta pertsonetan igo. Arlo sozialean, ezin du inolaz ere aurrekontuak kaltetuta atera.

Donostiako etxebizitzaren prezioak Europako hiririk garestienetakoa daude. Programan "Alokairuzko etxebizitza parke publikoak" mintzo zarete. Zer da hori?

Guk ziurtatu nahi dugu jendeak lo egiteko, jateko eta bertan egiteko lekua izango duela. Hori alokairuzko etxebizitza publikoaren bitartez lor daiteke. Eskubidea da lekua izatea bizitzeko, baina ez da eskubidea jabe izatea, hori egungo sistemaren isla bat besterik ez da.

Ehuneko handi batean, eta ahal bada %100ean, egiten diren etxebizitza berriak alokairuzko etxebizitza publikoak izatea nahi dugu. Etxebizitza hutsak alokairuzko merkatura aterako ditugu. Horretan serio hasiak gara lanean, estudioa eginez zein diren hutsak daudenak eta zergatik, asko espekulatzailen esku utziak baitaude.

Egunero euskaraz bizi denak zenbaterainoko aldea nabaritutako du, adibidez, euskarazko kultur eskaintzan...

Poliki poliki aldea nabaritutako du. Euskaraz bizi denari bere ohiko eremutik kanpo euskaraz bizi daitekeela erakutsiko zaio. Udaletxera edo museo batera joaten bada, euskaraz egingo diote harrera adibidez.

Hortik kanpo, Udalaren kultur programan nazioarteko ekitaldi asko antolatzen ditugu, pozik, baina bertako sorkuntza asko euskaraz egiten da eta horiek lekua behar dute.

**Zer garrantzi ematen diezue sinbolo-
ei, Espainiako bandera fatxadan izateari adibidez?**

Garrantzia eman behar zaie, baina erlatibo. Keinu batzuk egin ditugu. Ez da gure bandera, ikur arrotza da, baina hori kentzea ez dago gure lehentasunen artean. Jende asko desiatzen dago guk ilegalitatearen bat egiteko eta ez gaude horretarako prest.

Donostiari buruz eman nahi izan den irudia bestelakoa izan arren, euskal gatazka delakoa oso gordin bizi da hemen. Atentatuak, hildakoak bi aldeetan, presoak... Zer egin dezake Udalak bi aldeak elkarbizitza eta berradiskidetasuna indartzeko?

Hasiak gara lanean. Atzera horrenbeste begiratu gabe, aurrera begirako jardura lantzea interesgarria da, eta adibidez, hiztegia aldatzea. Enpatia, elkartasuna, kontsentsua, diferenteen arteko lana... hiztegia ere landu behar dugu. Gure ekarpena egin nahi diogu prozesu honi. Gatazka honetan zauri asko ireki dira eta ixten joan behar dute. Udaletik laguntzeko prest gaude, ezberdinen arteko akordioak bilatuz.

Legegintzaldia hasi bezain pronto, PPK ETArekin hilketa guztiak gaitzesteko mozioa aurkeztu du udal plenoetan. Nola interpretatzen duzu?

Gu ezberdinen arteko akordioak bila ari garen bezala –adibidez 2016koan, alderdi guztien batasuna lortu genuen–, atzera begira egindako ekimena iruditzen zait hau. Ez gara horretan eroriko. Ireki den prozesuari trabak jarri nahi dizkio, guk nahi dugunaren kontrako. Konfrontazioa bilatzen dute, eta ez, guk ez dugu halakorik nahi.

Bakoitzak kode etiko bat sinatu zenuen "edozein helburu politiko lortzeko biolentziaren erabileraren aurka" zaudetela adieraziz. Ondoren ordea, behin karguak hartuta, ETaz adierazpenik ez egiteko erabakia hartu duzuela dirudi. Zergatik?

Lehen esandakoagatik. Badirudi batzuk trabatu egin direla eta lehen-go hizkuntzara itzuli nahi dute. Ez du ezer ekartzen. Biolentziarik gabeko egoeraren aldeko apustua egin dugu eta politika egitera etorri gara. Horrek nahikoa eta sobera behar luke jendea lasai egoteko.

Currinek EHUren udako ikastaroetan ezker abertzaleak ETAren biktimen inguruan gogoeta egin behar lukeela esan zuen. Ba al duzue pentsatua zeozer?

Erreferentzia bezala Gernikako Akordioa dugu. Bertan hiru fase ikusten dira. Lehenean biolentziarik gabeko eszenatoki bat dago. Bigarreanean, negoziazioa. Eta hirugarren fasean biktimak daude. Biktimak, pisu handia dute eta era askotakoak daude. Nik omenaldi bat amesten dut, biktima ezberdinen omenaldia, eta alderdi guztiak eskutik helduta joango garela ikusi nahi nuke: PPkoak, EAJkoak, Bildukoak, PSEkoak... Bertan hemen gatazka bat izan dela aitortuko litzateke, biktimak sortu dituela eta errekonozimendua behar dutela.

Ezker abertzaleko zenbait sektoretan Donostia 2016an Europako Kultur Hiriburu izateko hautagaitzaren aurkakotasuna zegoen, gero ordea, behin Udalean Bildu sartu ostean, sorpresaz irabazi egin du, eta aldeko jarrera hartu duzue...

Bildun hasieratik defendatu genuen 2016ko hautagaitzan gauza batzuk gaizki egin zirela, baina proiektua eta diskurtsoa onak zirela. Kontua da diskurtsoa nahiko hutsa zela. Edukia behar zuen. Pertsonifika-

zioa ere kritikatzeko genuen. Odonen proiektu bat ematen zuen eta hiriarrena behar du. Hori aparte utzita, behin Gobernuan sartzean, hautagaitza defendatuko genuela esan genuen eta orain aukera ikusten dugu edukia emateko proiektuari, baita hemen herri bat eta kultura bat badela munduari erakusteko ere.

Nola planteatzen duzue proiektua?

Lau ardatz nagusi izango ditu. Lehena, partehartzea: lehendik ere planteatzen da, baina handiagoa izatea bultzatuko dugu. Bigarrena, hizkuntza: hasierako proiektuan baino askoz leku handiagoa behar du gure hizkuntzak. Hirugarrena, bakea: ideia azaltzen da, baina guk bakea normalizazio prozesuaren barnean sartu nahi dugu. Eta laugarrena, euskal kultura: hemen kultura bat dago, Europan kultura asko daude, asko minorizatuak, eta guk gurea erakutsi nahi diogu Europari.

Nolako lege gintzaldia aurrikusten duzu?

Nahi nuke goxoa izatea, demostratuz beste alderdiekin ere kontsentuak lor ditzakegula. Baina oposizioa gogor hasi da eta gutxiengoan gaudela kontutan hartuta, momen-



“Omenaldi bat amesten dut benetan, biktima ezberdinen omenaldia, alderdi guztiak eskutik helduta joango garela ikusi nahi nuke”.

tu latzak ere pasa beharko ditugu. Guk gure ildotik jarraituko dugu. Saiatuko gara alderdiekin hitz egin. Kostako zaigu, baina programaren parte handi bat aurrera aterako dugu. Ilusioz beterik gaude. ■

argia.com Bilduko zerrendetan joateaz, Boulevardari izena aldatzeaz eta Igeldo eta antzeko kasuez erantzunak. Baita elkarrizketaren bideoa ere.

EB Traducciones Itzulpenak, S. L.

www.tradebi.com

Enric Larreula, filologo katalana

«Jakín dezatela: gaztelania hitz egiten dutenean min egiten digute»

Gaztelania hiztun askok ez omen daki katalan hiztunari gaztelaniaz hitz egiten dionean min egiten diola. Katalan hiztunak sufritu egiten duela hizkuntza desagertzen ikusita. Inork adierazi ez badie, norbaitek esan behar die. Larreulak liburua bete du minez.

MALORES ETXEBERRIA
ONINTZA IRURETA AZKUNE
Argazkiak: Pello Zubiria

Katalan hiztunak bere hizkuntzagatik hainbat min sufritzen ditu. Zein dira min horiek?

Asko dira, baina nagusia bat da: justizia-mina. Herriari ezin zaio bere muina debekatu. Ondoko esaldia hainbeste aldiz esanda, sinestu ere egin dut nik asmatua dela, baina norbaiti lapurtuko nion: Herriaren hizkuntza maite ez duenak ez du herria maite. Oso erraza da. Ezin duzu herria maite haren muina maite ez baduzu, eta bere muina berea da, eta ez bestea. Etorri dira besteak, jakina, magrebiarrez, txinatarrez eta jende anitzez beteak daude hemengo kaleak, poztan naiz, baina hemen jaio zen hizkuntza bakarra katalana da, gainerakoak...

Justizia-mina da, baina hortaz gain, amorrazio amaigabea. Nola izan daitezke hain putakumeak? Nola gerta daiteke estatuek bertako espezieak lagundu, errespetatu eta babestu beharrean akabatu nahi izatea? Nire parametroetan ez da sartzen.

Indar gehiago eman dit amorruak maitasunak baino. Egia esan, hitz oso diferenteekin esanda, baina

“Orain bigunagoa, negoziatzaileagoa naiz, ez naiz hain agresiboa. Ondo etorri zait gaztelania hiztun batekin elkartu izana”.



gauza bera da. Ez dut nahi izan berea egin zezaten, eta ahal dudan guztia egin dut hala gerta ez dadin.

Minak ageriko egin behar direla diozu.

[Liburua hartu eta 17. orrialdeko pasartea irakurtzen hasi da]. Gezurra esaten dugu. Gezurra esaten dugu, besteak asko direlako eta gai honetaz konfiantzarik ez dugulako. Gezurra esaten dugu, uste dugulako barru-barruko halako kontuak ez dituztela ulertuko. Gezurra esaten dugu, ondo geratu nahi dugulako. Gezurra esaten dugu ez diegulako minik egin nahi, gure auzokideak direlako, bizilagunak, lankideak, lagunak, eta zorionez gero eta gehiago, gure gurasoak, eta hori ona da... Gezurra esaten dugu, maite ditugulako, elkarrekin bizi behar dugulako eta elkarrekin bizi nahi dugulako, arraioa!

Horregatik idatzi dut liburua. Jakin dezaten, hemen gaztelania hitz egiten dutenean min egiten digutela, min egiten digula gure hizkuntza desagertzen ikusteak. Haien intentzioa ez da guri min egitea, baina hainbeste dira, nire hizkuntza erabat babesgabe dago. Hizkuntza desagertzen ari bada, neurri handi batean, haien inozentziagatik eta fede onagatik da. Bizitzan arazoen aurrean erabakiak hartu behar dira. Oiloak desagertzen ari badira ezin duzu azeria aldamenean jarri! Gaztelania hitzuna ez da konturatzen arazoaz.

Zuk uste duzu ezetz?

Era askotako gaztelania hitzunik daude. Askorekin izan ditut elkarriketa inteligenteak eta oso ondo ulertu dute. Baina gehiengoak ez du ulertzen.

Adibide garbi bat: Cristinaren ama [Cristina bere bikote argentinarra da] Argentinako Mar de Platan bizi da. Planeta erdia zeharkatzen

Nortasun agiria

Enric Larreula Bartzelonako alde zaharrean jaio zen 1941 ean. 14 urterekin hasi zen lanean. Etorkin andaluziarren haurrei katalan eskolak ematen hasi zen 1960ko hamarkada bukaeran. Han ohartu zen orduko immigrazioaren eraginaz, “edo integratzen genituen edo desintegratuko gintuzten. Katalanon arazoaz arrastorik ez zeukaten, alegia, herri gisa desagertzen ari ginela”. Ezin izan zuen lan hori utzi, oraindik ere eskolaz eskola ibiltzen da ipuin kontatzen. 40 urterekin Filologia Katalana ikasi zuen eta hizkuntzaren didaktikako irakaslea izan da Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan, erretiratu den arte. Haurrentzat literatura asko idatzi du.

Katalan hitzun gisa asko sufritu du, eta bere eta besteen minak bildu zituen *Dolor de llengua* liburuan (Edicions 3 i 4, 2002). Hizkuntza ikuspegi emozionaletik lantzen ez zen garaian hitzunen minak agerian utzi zituen. Liburua idaztea terapia izan da. Orain, hizkuntzagatiko sufrimendua alboratu eta bigarren liburua egin nahiko luke, hizkuntzak eragindako gozamenak nabarmentzeko.

zuen, Bartzelonako Prat aireportura heltzeko. Etxetik atera izan ez balitz bezala hitz egiten ateratzen zen hegazkinetik. Ni etxetik ez nintzen mugitu eta hizkuntza arraroan hitz egin behar nion hari. Beno, ez da hizkuntza arraroa niretzat... beno bai, arraioa, bada! Bada, andre horrek ez luke sekula ulertuko eta ez naiz saiaturiko horretan. Baina nahiko nuke, gutxienez, katalanek uler dezaten hau.

**“Bilobak esan izan dit
katalanez niregatik hitz
egiten duela. Nik ez diot
inoiz esan katalanez
egiteko, baina nik ez dut
besterik hitz egin etxean”**

Katalanaren aldeko borrokak pozak ere eman dizkizu.

Gaztetan, txantxetan bazen ere, esaten nuen, “nolako inbidia diedan gaztelania hitzunei, ez dute kezkatu behar hizkuntzagatik eta beraingatik, munduko estatuek babesten dituzte, toki guztietan errespetatzen

dituzte”. Orain hala diot: “Nolako zortea daukadan katalan jaio naizelako!”. Borroka honek indarra, autoestima, eman dit. Bi estatu batuta, hipokresiaz, armadaz eta telebistaz josiak. Haiek baino indartsuago sentitzen naiz, ez naute eraitsi. Zoriontsu egin nau horrek.

Gaztelania hitzunek borrokaren gozamenaz ez daukate arrastorik ere. Aldizkari batek bizirautea lortzea [ARGIAz ari da], konturatzea zure izateko eragatik konbentzitu duzula norbait, zure adibideak balio izan duela besteek kontzientzia har dezaten...

Katalanez jakin ez eta horregatik sufritzen dutenekin ere hitz egin duzu.

Autoestima baxua daukate. Fede oneko gaztelania hitzunen arazoa ez da ezin dutela katalana hitz egin, baizik eta ez direla ausartzen. Norbanakoak gaitasun espresibo guztia garatu du ama hizkuntzan, eta nabarmentzeko balio dion gaitasun espresibo hori gorde eta beste hizkuntza batean lehen pausoak ematea, gaizki hitz eginez... Bere irudia distorsionatuta geratuko da.

Babeslea: IVAP


“IVAPen misioa da Euskadiko Herri Administrazioetako pertsonak eta antolakuntza hobetzea, administrazio eraginkorragoa, efizienteagoa eta elebiduna lortzeko asmoarekin, eta zerbitzu publikoko zenbait balio komun oinarri hartuta. Horretarako, honako hauek egingo ditu:

IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

- Euskadiko Herri Administrazioen zerbitzura dauden langileei etengabeko prestakuntza eman eta langileak hautatu.
- Euskararen erabilera administrazioan normalizatu dadin sustatu.
- Itzulpen ofizialak eta lege- eta administrazio-arloko euskarazko terminologia.
- Hizkuntzari, legeari eta antolamenduari buruzko aholkularitza, eta antolaketa eta kudeaketaren inguruko ikerkuntza.”



Erakunde Autonomiarena
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Katalan hiztunek, minak ezkutatzeke, gaztelania hitzunei gezurrak nola esaten dizkien irakurtzen ari zaigu Larreula etxeko egongelan.

Beraz, katalanez hitz egiteko ahalegina egiten duten guztiek gure errespetua eta babesa merezi dute. Sarri kontrakoa gertatzen da. Ez da fede txarrez egiten, baina barre egiten zaie. Jendeak ez dauka gauza hauen kontzientziarik.

Nola bideratzen dituzu minak?

Ahal dudan bezala, ia inoiz ez egoki, alegia, beti sufritu dut. Akordatzeko naiz behin ikastaro batean irakaslea nola gaztelaniaz ari zen, katalana izanda. Banaka hitz egiten ari ginen eta guztiek gaztelaniaz egiten zuten. Nik hitz egin behar nuen eta ari nintzen, "indartsua izan behar duzu orain, ni neu izan behar dut...".

Altxatu eta brrrr [amorratio aurpegia jarri du]. Esaten duzunak ez dauka interesik, kontua da katalanez ari zarela eta mundu guztiak horregatik begiratzen dizu. Espezimen gogaikarria zara! [Geroago azaldu digu horrelako egoerak gaur egun ez direla gertatzen Katalunian].

Gaur egun bizitzako beste momentu batean nagoela iruditzen zait. Agian ez naizelako jada irakasle, agian zahartu naizelako eta ez adinez, baizik eta pertsona gisa. Orain bigunagoa, negoziatzaileagoa naiz, ez naiz hain agresiboa. Onerako bilakaera izan dudala uste dut. Ondo etorri zait gaztelania hitz bategin elkartu izana.

Gutxiago sufritzen duzu.

Sufritzea ez da ona, ez da ona ezta estrategikoki aritzeko ere. Sinestazteko ondo egon behar duzu, lasai. Bilobak [bikote argentinarra-

"Nire diagnostikoa negargarria da, bi belaunalditan katalana erabat bazterreko kontu izatera igaroko da. Hiri nagusietan hala da. Baina badira medikamentu alternatiboak, belaunaldi berriak..."

rena] esan izan dit katalanez niregatik hitz egiten duela. Nik ez diot inoiz esan katalanez egiteko, baina nik ez dut besterik hitz egin etxean. Uste dut irabazi dudala. Bada jendea miresten nauena nire jarreragatik. Amore eman duenak, etsenplua ematen ez duenak, ez du konbentzitzen. Etsenplua eman behar da hainbeste sufritu gabe.

Asertibitateaz hitz egiten da asko han.

Mundu honetan obligazioaren bat baldin badugu, zoriontsu izatea da. Zoriontsu denak askoz indar handiagoa dauka konbentzitzeko oinazez bizi denak baino. Hizkuntzaminak besteak baino atseginagoak izatea ere eskatzen digu. Katalanez hitz egiten duzu eta era berean eskua bizkarrean jartzen diozu. Etengabe egon behar duzu erne, baina modu askotara egin dezakegu, modu okerrean oinazez beteta egoitea da. Baina kontuz, zerbait ondo ez dabilela ikusiz gero, salatu eta erridikuluan utzi bestea.

Nola dago katalana?

Asko aurreratu dugu. Onarpena dago. Katalana hizkuntza normalizatua da. Ez dago normalizatuta kalean, baina erakunde publikoetan bai. Justizian ez, baina Generalitatean, udaletan, diputazioetan, bulegoetan bai. Enpresarentzat lotsagarria da katalanez ez dakien bulegaria izatea. Hori irabazita daukagu, oraingoz, PP armatzen ari da-eta.

Katalana kalean ez dagoela normalizatuta esan duzu.

Onera egin du katalanak. 1969an, eskola batzuetan irakasleok katalanez erakusten genuen, ez zegoen baimenduta, baina eskola batzuetan uzten ziguten. Gure ilusio gorena eskola guztietan katalanez egitea zen. Orain dena ari gara katalanez egiten. Gure espektatiba handienak gainditu dira. Katalunian katalana beste hizkuntzarik hitz egin gabe ibiltzen naiz. Valentzian ez da hala.

Baina kalean katalana ez dela erabiltzen esan duzu. Nola ikusten duzu egoera?

Oso-oso-oso hauskor. Nahiz eta ofizialki irabazi dugun, sozialki

Immigrazioa

Bartzelonako alde zaharrean jaio nintzen, Raval auzoaren ondoan. Bazen norbait gaztelaniaz egiten zuenik, baina ezagunek katalanez egiten zuten. Orain, han inork ez du katalana hitz egiten. Katalan hitz bategin oraindik zer diren ere jabetu ez direnean etorri zaigu hau dena. Nola integratu dezakezu kanpotik etorritako masa bat bertako indigenak indigena gisa ere portatzen ez badira? Kikilduta, konplexuz beteta eta ezkutatuta daude, inor ez gogaitzeko.


hauskortasun egoera muturrekoan gaude. Eskoletan ipuinak kontatzen dizkiedan haur horiek, emozioz beteta katalanez hitz egiten didaten haur horiek, guraso direnean gaztelaniaz egingo die umeei.

Kaleko bataila galduta dago orduan?

Nik uste dut baietz, baina ni ez naiz ezeren garantia, erratu naiteke. Bizitza honetan gehien desio dudana erratzeta da. Baina nire diagnostikoa negargarria da, bi belaunalditan katalana erabat bazterreko kontu izatera igaroko da. Hiri nagusietan hala da.

Baina, badira medikamentu alternatiboak, belaunaldi berriak... Adibidez, orain independentzia egarria lehertu da, eta sintoma oso positiboa da. Hemen inoiz ez zen hau ikusi. Lau ginen, orain asko gara! Mugimendu hau ez dute geldituko.

Kontua da beldur naizela ez ote garen berandu helduko, Irlandan bezala. Irlanda estatua da, baina hizkuntza ez dute erabiltzen. Jada ez die minik egiten ingelesez hitz egiteak, eta minik egiten ez dizunez ez daukazu defentsarik goardia egiteko eta ekintzarako. Lehen esan dut maitasunak baino amorrazioak mugiarazi nauela, amorrazioa minak eragin dit, nahiz eta orain lasaia nagoen. Gorputzak min egiten ez dion jendea hilda



"Katalanak tontotuta daude, ez dakite nola funtzionatzen duen hizkuntza ordezkapenak".

dago, mundua justua dela uste duena galduta dago. Ni ez nago galduta eta salbatuko naiz. Eta horrek poza ematen dit eta orain jende asko ari da mugitzen, jende gaztea, bileretara joaten naizenean zaharrena naiz.

"Zoriontsu denak askoz indar handiagoa dauka konbentzitzeko oinazez bizi denak baino"

Beraz, nola dago katalana?

Perfektu dago, inoiz ez da hobeto egon, inoiz ez da hainbeste pertsona egon katalana jakin, ondo hitz egin eta idazteko gai. Etorkizuna? Beltza. Hizkuntza idatziaren bidean doa, baina hitz egingo ez den hizkuntzaren bidean. Hala ere, denborak alde jotzen du, prestigioa duen hizkuntza da, datozenek badakite hori eta haurrek ikastea nahi dute, prestigioa hizkuntzaz gain lanerako balio duen hizkuntza dela-

ko. Hori hemen, Valentzian eta Mallorcan ez.

Egoera hau sinestezina zen duela urte batzuk, baina katalanak tontotuta daude, ez dakite nola funtzionatzen duen hizkuntza ordezkapenak. Kontua da kontzientzia izatea eskubide osoa daukazula zure hizkuntzan hitz egiteko. Eta anomaliaren bat baldin badago ez duzula zuk eragin, baizik eta 2.000 kilometro haragotik etorri den horrek. Beti gara ahulago, zeren besteak gehiago dira eta tontoagoak. Hizkuntza bakarra dakite, guk bi, zoritxarrez haiena badakigu. Hain erraza da gu menperatzea.

Salbatuko al da katalana?

Nik uste dut, era batera edo bestera, bai zuek eta bai guk, salbatuko dugula gure lurraldea eta hizkuntza. Zergatik? Ez daukat arrastorik ere... Jendea dago, jendea dago ados ez

dagoena. Ipar Katalunian hizkuntza galduta zegoen, orain ilara dago katalanezko eskoletarako. Han jolastokietan katalanez egiten dute. Hizkuntzak errekupeatu daitezke, baina gauza bat behar da: herriaren borondatea, baldin eta guztiz ordezkaturia izan ez bada. Belaunaldi batean hitz egiten ez bada jada ez dago hori errekupeatzeko beharrik.

[Etorkizuna beltz ikusten du, baina Enric Larreulak ez du errenditzeko asmorik, eta ez dago saminduta].

Hizkuntza izateak esan nahi du talde bat daukazula eta talde horrekin hitz egin dezakezula. Noski beste hizkuntza bat zureganatu dezakezula eta komunikatu zaitezkeela, baina horrek ez dauka grazia-rik, grazia dauka milaka urtetan gizakiek landu duten hizkuntza hori mantentzeak. Zergatik izorratu behar dugu hori dena? Defendatu egingo dugu, eta zergatik? Arrazoi oso sinple bategatik: hala nahi dudalako. ■

Loturak

Erratu gaitezke, baina pentsatzen duzu hizkuntzaren gaian bat egin badugu, beste gauza askotan ere bat egingo dugula. Hizkuntza bezala, lurra, paisaia, animaliak, zuhaitzak gustatuko zaizkiola. Loturak azkar asko egiten dira. Azken finean, jendeak egiten du hizkuntza, jenderik gabe ez legoke hizkuntzarik.

B ereduko ikasleentzat ere euskara tituluak

EUSKO JAURLARITZAK, ez da denbora asko, D ereduko ikasleentzat proposamen bera egin zuen. Alegia, D ereduan ikasi izanak nahikoa berme izan beharko lukeela euskara-gaitasuna frogatua izateko, eta beraz, ikasle horiek titulua lortzeko azterketarik ez luketela egin behar proposatu zuen Jaurlaritzak. Orain B eredukoak sartu ditu zaku berean. Hainbat baldintza betetz gero, DBHko ikasleek B1 maila lortuko lukete, Batxilergokoek B2 maila eta unibertsitateko ikasleek C1 edo C2 mailak eskuratu ahal izango lituzkete.

“Txepetx” Galizian

TXERRA RODRIGUEZEN blogaren bidez jakin dugu, bederatzi urtez hitzaldirik eskaini ez duen José María Sánchez Carrión hizkuntzalaria Galiziako A Coruña-ko Unibertsitateak antolatutako udako ikastaroetan izan dela. Astekariaren zenbaki hau ixteko zegoela Rodriguezek hitzaldiko hainbat pasarte kontatuak zituen blegean (www.blogak.com/garaigoikoa) eta hurrengo egunetan helbide honetan (www.lantalán.com/262), Marije Manterolarekin batera egindako elkarrizketa argitaratzeko asmoa zuen Rodriguezek. Hona hitzaldian Txepetxek esandakoaren prin-

tza txiki bat: “Elementuak hiru dira: motibazioa, ezagutza eta erabilera. Baina laugarrena zirkulazioa da, hiru elementuen artean, jarraia eta malgua. Eta bosgarrena funtsezkoa da: pertsona da. Zu zara bosgarren elementua, zureganatu duzunean proposamen teoriko eta praktikoa hau”.

BAHEA

Sechu Sendek irakasle eta idazle galegoak Noticias de Alavan esanak: “Barregarriak izan gaitezke, ideologia politiko jakin batekin lotzeko beldurra dugulako galegoa ez hitz egiteko gai gara edo ezjakinak garela pentsatuko dutelakoan asturiarra baztertzeko gai gara. Aurreiritzi eta estereotipo horiek suntsitzeko modurik onena horietaz barre egitea da. Hipnosia erabiltzea, trufa da, eta umore galegoaren bidez hau guztia surrealismoarekin eta zentzugabekeriarekin lotzeko modu bat”.

Euskarabideko zuzendari kargutik kendu berri duten Xabier Azanzak Berrian esanak: “Kritika gehiago jaso ditugu euskalgintzaren aldetik, normala denez. Euskalgintzak beti gehiago eskatu behar du, eta ongi ulertzen dut. Ahal genuena egin dugu. Hizkuntza politika gobernua erabakitzen du, ez zuzendariak; gobernua erabakitako politika gidatu behar du hark. Orain bi urtekoa izan zen une gogorrena, hedabideak diru laguntzarik gabe geratu zireneko. Azken unera arte borrokatu ginen laguntzei eusteko, baina ez genuen lortu”.

Carme Junyentek Berrian esanak: “Katalunian, esaterako, gazteak dira arazo, ez baitute katalanez hitz egiten. Hizkuntza ohikotzat jotzen dute, eta, horregatik, ez dute gehiago erabiltzen. Euskal Herriaren kasuan, erronka handiena euskaldunak ez direnek seme-alabei euskara transmititzea da. Eta hori ez da derrigortuta lortuko”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

ELA, abertzalea eta antikapitalista

Uztailaren 23an ELAk mendea bete du. Euskal langileen alde lan egin eta borrokatu du mende horretan. Erakundea, klandestinitatetik gaur arte, garaian garaia egokitzen joan da. Historian askotan kritikatu izan da sindikatuak, arrazoiarekin edo arrazoirik gabe. Ezkerreko posizioetatik sindikatu horia izatea leporatzen zioten, agian, EAJren klaseen arteko planteamenduetara hurbiltzen zelako. Bere historiako azkeneko zatian, Alfonso Etcheberriatik gaur egungo Muñozera –Elorrieta tarteko– ideia abertzale eta antikapitalistengatik nabarmendu izan da ELA, baita subiranotasunaren eta independentziaren aldeko izateagatik ere. Hain zuzen, bi ezaugarri horiek, abertzale eta antikapitalista izateak, kritikak ekarri dizkio EAJ alderdiaren, EAJren eta PSOE-PPren gobernuen bai eta CCOO-UGT eta patronalaren aldetik ere.

Abertzaletasun eta antikapitalismo horrek lagundu dute, ordea, azken urteetan ELAk eta LABek ekintza batasuna bultzatzea, bai lan arloko arazoei aurre egiteko eta baita Euskal Herriko arazo politikoari aurre egiteko ere. Elkarrekin hainbat greba orokor deitu dituzte jadanik. Ekintza batasun horretan izan dira, baita ere, Hiru, EHNE, STEE-EILAS eta ESK. ELA euskal sindikalgintzako gehiengoa izatera iritsi da, CCOO-UGTren oso goitik. Garai batean, ELAk eta LABek sindikalgintza ereduaz dituzten ezberdintasunak bateraezinak zirela uste zen, baina gaur egun ikusi da ez direla funtsezkoak. Elkarbanatzen dituzte kapitalari erradikaltasunez aurre egitea eta nazio subiranotasunaren defentsa. Bere mendeurrenean, ELAko milaka gizon eta emakume Euskal Herrian egindako lana onesteak merezi du. Zorionak eta aurrera!

Juan Mari Arregi

Herrialdeak irensten dituen zulo beltza

"GERRA HOTZA-REN ondorengo munduak bi superpotentzia ditu, AEBak eta Moody's agenzia". Thomas Friedman, *The New York Times*-eko atzerri politikako editorialistaren esaldia da eta hala azaltzen die berau bere irakurleei: AEBek beren tresneria militarrekin etsaia suntsitu dezaketen moduan, Moody's finantza balorazio agentziak herrialde baten finantzak ito ditzake herrialde horri 'nota txarra' jarritz gero".

Goiko paragrafoaren bukaerak ez digu argitzen gauza handirik, gaur egun Europan ondo baino hobeto ikusten dugu kalifikazio agentzien "nota txarrak" zein egoeratan uzten duten estatu bat —Grezia, Irlanda...—. Friedmanen esaldia, dena den, bitxia da gerra hotzari egiten dion erreferentziak iragan mende bukaerara eramaten gaituelako. Eta bitxia da, izan ere, goiko paragrafoa 1997ko *Le Monde Diplomatique* hilabetekariako artikulu batekoa delako. Duela 14 urtekoa: orduan jada bazekiten kalifikazio agentzien indarrak, baina ez da oraindik horien kontrolerako neurririk hartu, 2007az geroztik neurriak hartuko direla azpimarratzen bada ere.

Duela hamalau urte Europako gizarteetan, zorrarekiko arazoak garapenean ziren herrialdeetako kontu itsusia besterik ez ziren. Orain hobeto uler ditzakegu Nazioarteko Diru Funtsak edo Mundu Bankuak herrialde haietan bultzatzen zituzten "egiturazko txoke planak" zer esan nahi zuten, zer esan nahi duten: han miseria, gosea, heriotza; hemen lan eta pentsioen erreformak, ondasun publikoen pribatizatzea... herritar askoren pobretzea funtsean, eta hamarkadetan irabazitako ongizate gizartearen ahultze itzela.

Baina Europako estatuek gutxi ikasi dute garapenean diren herrial-



deen kanpo zorraz. Joan den asteko Europako Batasuneko agintarien gailurrak erabaki garrantzitsuak hartu zituen, baina oraindik ere azalekoak funtsezko arazoei dagokienez. Bi eratako erabakiak har zitzaizkeen: bat, EBk bere diruekin Greziarekiko bigarren diru "erreskate" handia bideratzea; bi, nola hala bankuak ere "erreskate" horretan parte hartzea behartu.

Batez ere bere diru publikoarekin aritzea erabaki du EBk, bai Greziari mailegu berriak eskainiz (109.000 milioi euro gehiago) edota lehengo zorren interesa jaitsez eta zorraren itzultze data luzatuz. Bankuak bakarrik Greziaren zorra luzatzera behartu dituzte. Hemen garrantzitsua da argitzea, adibidez, Greziarekiko "erreskateaz" hitz egiten denean, maileguez ari garela eta ez doan ematen den diruaz. EBk %5,5eko errentagarritasuna ateratzen du azken mailegu horietatik, EBko edozein herritarrek beren aurrezkiekin bankuetatik atera dezaketena baino askoz errentagarritasun handiagoa. Eta, hala ere, Greziak bizi duen finantza egoeran interes hori mauka da, kontuan hartzen bada, adibidez, 10 urterako bere zorra %20ko interesarekin ordaindu behar duela.

Eta hor dago klabeetako, %20ko interes horrek adierazten duela —finantza merkatuen hizkuntzan— Greziak arazo handiak izan-

go dituela diru hori itzultzeko, eta hala ere Greziako bono horiek edo antzeko beste batzuk erosi egiten direla. 2007an AEBetan *subprime*-ekin bezala, orain hemen estatuen zorrarekin ari da gertatzen. Hor dago arazo larriena, kontrolik gabeko arrisku eta irabazietan.

"Bankuen ohiko zereginera itzuli behar da", "atzera egin behar da", "ezin da orain arte bezala jardun"... 2008tik entzuten ari garen *mea culpa* da. Baina ez, egiazki, finantza munduari ez zaio hori guztia interesatzen, horrek ez du dirurik ematen, hori ongizatearen kapitalismora itzultzea litzaiteke. Egungo finantza munduarentzat funtsezkoak dira arrisku handiak, botoi bakarra sakatzuz dirutzak di-da batean galdu edo irabazteko amildegia... Funtsean, hori guztia behar du, zutoin horien gainean eraiki delako azken 30 urteotako mundu mailako finantza sistema, dagoeneko pertsonak, etxeak, agintariak eta estatu osoak irensteko gai den zulo beltz bilakatua.

Kontua da finantza marrazoen joan-etorri hau dela gaur egungo mundu mailako finantza globalizazioaren muina eta lokomotora. Eta tren horretan eramaten dira, etengabe, herritarren errentak aberatsenen poltsikoetara. Adibidez, Alemaniaren EBk dirua uzten dio Greziari eta honek hau itzultzeko enpresa publikoak lau txakur-handitan saltzen dizkio Alemaniako multinazional bati. Negozioa boro-bila da. Zergatik aldatu? Joan den asteko neurriek arazoa atzeratu besterik ez dute egiten. Akaso denbora horretan EB politikoagoa erakitzeke asmoa dagoelako? Horrek EB marrazo handiagoa bilakatuko luke finantzen mundu globalean, baina sistemaren zutoinak aldatu gabe marrazoek arrain berdinak irensten jarraituko dute.

PELLO ZUBIRIA

Abuztua izanagatik Fukushima ez dizu opor egingo

Telebistaren eta egunkarien isiltasunari sinestekotan, Japoniako krisi nuklearra gaudituta dago. “Ez zen hain larria izango, berriro opor egin die errealitateak alarmazaleei”, pentsa lezake euskaldun sentiberak... baldin eta Internetik ez balego. Baina lobby nuklearrak lortu du orain arte hondamendia blogen muga estuetan hesitzea.

ZENTRAL NUKLEARRA UHOLDEAK harrapatuta AEBetako Nebraskan, bonba atomikoak ekoiztu dituen Los Alamosko laborategi erraldoia suteak inguraturik... ikusi al duzu horien irudirik inon, Euskal Herrian? Hemengo telebistetan katastrofe eske ari diren editoreek Fort Calhouneko zentral Missourik itoa “ahaztu” dutela? Ikusleen malakoak bilatzen dituzten kazetariei oharkabea pasatu Fukushimaetik etorritako bideo zirrargarriak? Nola liteke?

Trikimailua Londrestik azaleratu du *The Guardian* egunkariak: “Gobernu britainiarraren planak Fukushimaoari garrantzia kentzeko”, titulatu zuen ekainaren 30ean. Lurrikararen eta tsunamien poderioz Fukushima Daiichiko zentrala lehertu eta bi egunera, Londresko gobernuak *lobby* nuklearrarekin adostu zuen marketin kanpaina bat, istripuaren itxura lausotzeko. Horra Europako hedabideek zorrotz darabilten *omertá* esplikatuturik.

Frogak erakutsi ditu *The Guardian*ek: 80 elektroposta gobernuako funtzionarioen, EDF Energy konpainiaren, Arevaren eta Westinghouse-aren artean. EDF da Frantziar jatorria duen elektrizitateko multinazional erraldoia. Arev munduko nuklearrak daukaten hornitzaile nagusietakoa, frantsesa hau ere;

planetako erreaktoreen herenak Arevaren uranioa usatzen du, uranioz eta plutonioz osatutako MOX erreagai berriaren sustatzaile nagusia ere bera da, Afrikatik Ingalaterrara. Westinghouse amerikarra da, etxeko tresnen ekoizle gain, erreaktoreak fabrikatzen dituen konpainia nagusia.

“Egoera honek atzerakada handia ekar diezaioke industria nuklearrari”, zioen Londresko Gobernuaren arduradunetako batek eragile pribatuoi bidalitako emailtako batean. “Nola edo hala lortu behar dugu guri aurea ez hartzea antinuklear jendeak. Eremua okupatu behar dugu eta atxiki. Nuklearrak seguruak direla erakutsi behar dugu”. Beste mezu batean: “Antinuklearrak European lortu dute guzti hau Txernobylekin lotzea. (...)Txernobylekoarekin egindako konparazio horiek zanpatu behar ditugu”. Horrelaxe, hitzez hitz.

Orain, Londresko egunkariak –Murdochen hedabideek antolatu konspirazioak erakutsiz eskandalu berria piztu duen berak– publikatuari esker dakigu martxotik aurrera Britainia Handiko Gobernuak eta nuklearretako enpresa nagusiek kaleratzen zituzten iritziak oro aurrez elkarren artean adostuta etorri zirela. Beste elektroposta batean funtzionario batek zioenez, “guztiok material bera erabili behar dugu komunikabi-

ludi handiak abuztuko oporak bururatzen dizkio herritar arruntari, halako ekililiak topatuko baititu Europako edozein landa eremutan, egun bero argitsuen iragarle. Japonian, aldiz –argazkia *Education in Japan Community* dauka webean–, eskoletan haurrei irakasten zaie ekiloreak erabili izan direla Txernobylez geroztik erradioaktibitatez kutsatutako lurretan, zorua garbitzen laguntzen duten landareak direlakoan. Foto txikikoa da Nakate San, Fukushima Haurrak Erradioaktibitate Babesteko Elkarteko burua, gure artean ere ezaguna egin dena hizkuntza askotan azpiztitulata –euskaraz ere bai– Interneten zabaldu duen mezua dela eta. Une honetan Fukushima pilatuta dutena baino erradioaktibitate gutxiagorekin Txernobyl inguruko eremu osoak ebakutu zituztela salatu dute Nakatek eta beste hainbat ekintzailek.

deen eta jendearen aurrean azaltzeko”.

Egunkarian Ingurumen saileko arduraduna den John Vidalen iritzian “pozik egon behar dute antzerki honetako jokalariek orain arte lortu dutenarekin, ikusirik nuklearraren inguruko eztabaida nola joan den Britainia Handian”. Londresko Gobernuak ekain bukaeran eman baitu baimena zortzi zentral berri eraikitzeko, eta inork gutxik egin du garrasi.

Fukushimaren aldeko auzolana

Zentral nuklearren jabeek daukaten indarraren beste adibide bat Frantziar ikusi da berrikitan. Noizbait ezker erradikalaren eta *gauchismo*aren ikono izandako *Libération* egunkarian zuzendaritza batzordeko buru izendatu dute... 15 egun lehenago arte Arevako zuzendari izandako Anne Lauvergeon. Nuklearzaleen artean gabiroti gogorra Lauvergeon. Jakina zen *Libé* Rothschild familiak bereganatua zuela, baina disimulu pittin bat ere ez erabiltzea...

Beraz, gure komunikabide gehienek –handiek agenda markatu, txikiak hari segi– Fukushima isilpera kondenatu dute. Alabaina, Japonian erradioaktibitatea ez da desagertu, aitzitik, haren oihartzunak gero eta ozenago ikusi eta entzuten dira Interneteko blog eta agerkarietan.



Bakan batzuk laburbilduko ditugu, ingelesez eta frantsesez Fukushima-koaren jarraipena egiten duten serio-enetatik hartuak.

Gehiegizko erradiaktibitatea gero eta janari gehiagotan azaltzen da. Lerrook idatzi aurretik azkena, estalpean hazitako shiitake perretxikoe-tan, Tokyon aurkiturik. Aurretik, 26 probintziatarazabaldu da Fukushima-koaren erradiazioz banatutako behi haragia. Behikia, txerrikia, esnea, barazkiak, tea, aziendenzako belar ondua... zerrenda luzatuz doa.

Erradioaktibitatea gero eta leku gehiagotan aurkitzen da. Hondakinen errauskailuetan, esaterako, kopuru handietan azaldu da. Baina autoen haize egokitu sistemetan ere nabarmendu dira erradioaktibitate

arrastoak. Orobat Fukushima-koaren aparte, Tokyo barne, euri gehien biltzen duten gunee-tan, parkeetan, estolderian, eta beste.

Fukushiman bertan eskoletan-eta hasi dira kutsatutako lurrazala kendu eta lurperatzeko obrak. Harrigarria dirudien arren, eskola-umeak bertan direla. Hain zuzen, Fukushima-koaren herritarren mugimendu gero eta handiagoa da beste albisteak. Dizi-plina handiz jokatzeko dute japoniarrek, beren artean bezala agintarie-kiko, baina gero eta gehiagok salatzen dute buruzagiek engainatu egin dituztela, laborategiko akurizat erabiliz.

Herritar batzuek kexuz eta mobilizazioz erantzuten duten moduan, ez dira gutxi etsipenezko erabakiak hartzen dituztenak. Tantaka iristen

dira beren burua hiltzen dutenen berriak, lurra eta bizimodua pozoitu dizkieten baserritar bat hemen, familia urruti joanik etxetik alde egin nahi ez duen 93 urteko amandrea han...

Agintari japoniarrek mezu kontraesankorrek zabaltzen dituzte. Berrikitan Naoto Kan lehen ministroak zalaparta eragin du deklaratu duela, ikusita zer nolako arriskuak dakartzaten, zentral nuklearrak gabeko gizarte baterantz joateko urratsak eman behar direla. Baina beste eskuarekin erradiaktibitatearen inguruko informazioak larri manipulatzeko darrak.

Uztailera arte ezkutuan eduki dituzte martxoan bertan Fukushima-koaren 1.050 haurri egindako neurketen emaitzak: ia erdiaren tiroideek erradiazio arrasto nabarmenak zituzten. Baina gainera, agintariak jarraitzen dute herritarrek nozitu beharreko gehieneko erradiazio kopuruen topeak manipulatzeko, bai jendeak hartu ditzakeen milisierbet eta bai lurrean bezala janarietan pilatutako becquerel kopuruak handituz.

Japonian bertan herritar ugari talde zahar eta berrietan bilduz doaz. Batzuek elkarren laguntza antolatze-ko, etxetik alde egitera bortxatuei esaterako. Beste batzuek erradiazioen kontrola auzolanean abiatze-ko, agintariak ematen dituzten datu eta informazioak fidagarri ez zaizkielako.

Eta mundu osoan ekintzaileak ugarituz doaz. CRIIRAD eta Greenpeace bezalako klasikoak japoniarrekin elkarlanean. Berri pila bat ere bai, ezezagunagoak, informazioak bildu, laburtu, sailkatu, itzuli, landu eta zabaltzen. Opor egin gabe. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Kike Diez de Ultzurrun Sagala

Abiapuntua

Maiatzeko hauteskundeen ondotik, Barcinak pozaren pozez jarraitzen du harat-honat, oraingo honetan erregina koroaturik. "Gaztelaua Nafarroako erregina". Horra maiatzeko hauteskundeek ekarri digutena, egiazki ez baitzen bertzelako aukerarik, PSNren manierak ezagututa. Duela lau urte, jende anitzek zintzoki pentsatu zuen aldaketa Nafarroa Bairen eta PSNren eskutik etorriko zela, baina aukera hura PSNk zapuztu zuen. Orain, aldaketa hainbat tokitan gertatu da, eta Bildu izan da eragile nagusia. Ez, ordea, Nafarroan. Hauteskunde gauean bertan izan zen Bilduk hiriburuko Labrit pilotalekuan antolatutako jaitik buru makur atera zenik. Mendebaldeko emaitzak goraka ospatzen ziren bitartean, bi datuk hoztu egin zuten jende askoren gogoak; Iruñeko eta Nafarroako emaitzek, alegia. Bozen ondoko egunetan, arrangura mingots eta hits berbera jalgi zen adineko iruindar frankoren ezpagnetatik: "Orain dela lau urte, bazirudien Nafarroa Bairekin lortuko zela, eta orain, Bildurekin, baina kia! guk ez dugu aldaketarik ikusiko! Zuek, ez dakit". Egia erran, inoiz aldaketarik gertatzen bada, ez da PSNren eskutik etorriko, Alderdi Sozialista Nafarroako erregimenaren barne munitetan iltzez txertatua baitago; horretan, behintzat, iduri du batzuk eta bertzeak bat datozela.

Nafar Parlamentuko emaitzei erreparatuta, aurrerapausorik izan da. Konparazio batera, Iruñerriko, inguruko eta Pirinioetako herri txiki askotan gehiengo dira Nafarroa Bai eta Bildu, betidanik eskuindarrek botoak *esportaka* lortu izan dituztenean. Erriberari dagokionez, ordea, gauzek bere horretan diraute, salbuespenak salbuespen; Erriberak eremu latza izaten segitzen baitu jende euskaltzale eta abertzalearendako, baina, kasu! baita Ezker Batuak eta Batzarrek osaturiko Ezkerra koalizioarendako ere. Hala ere, NaBai 2011, Bildu eta Ezkerraren artean 18 eserleku erdietsi dituzte Parlamentuan; ez da aski, jakina, Nafarroara aldaketarik den mendrena ere ekartzeko, baina zerbait bada, eta zerbait gehiago ere izan daiteke: abiapuntu bat, alegia. Argi dago, horrenbertzez, hiru talderen arteko oinarri



JOSU SANTESTEBAN

soziala zabaltzeko beharko dela, hirurak izan beharrezko etxean botoa ematera joan gabe gelditu direnak mugiarazteko, PSNko boto-emaleei keinua egiteko, Erriberako jende aurrerazalea aldaketara ekartzeko.

Baina, ezer baino lehen, talde bakoitzak bere etxea ongi antolatu eta txukundu beharko du, eta alkate-makila eskuratu duten udaletan ongi gobernatu; horrexek sekulako garrantzia baitu, bai eta Bilduk Gipuzkoan egiten duen kudeaketak ere. Azken buruan, inor ere ez dago sobran. NaBaik, esate baterako, bide puska bat egina du, ez da izen hutsa, izana ere badu, eta, erakutsi du gauza dela bertzelako jendea euskaltzaleen eremura erakartzeko, eta balizko gehiengo berri horrek holako indar baten beharra ere izan du. Bertzela erranik, ezker abertzaleari sekula botoa emanen ez lioketen zenbait sektore eroso egon litezke holako indar baten baitan edo NaBairen balioak bere egiten dituen talde baten baitan.



NaBai 2011, Bildu eta Ezkerraren artean 18 eserleku erdietsi dituzte Parlamentuan; ez da aski, jakina, Nafarroara aldaketarik den mendrena ere ekartzeko, baina zerbait bada, eta zerbait gehiago ere izan daiteke: abiapuntu bat, alegia. Argi dago, horrenbertzez, hiru talderen arteko oinarri soziala zabaltzeko beharko dela, hirurak izan beharrezko etxean botoa ematera joan gabe gelditu direnak mugiarazteko



Aldaketarako bidean, halaber, ezinbertzekoa izan da ETA behin betiko desagertzea, mehatxatu orok behingoan atsedean har dezan, eta, era berean, Bilduri botoa emandako EAko nafar jendeak lasaitu ederra har dezan. Eta, joan den eguneko komunikatua irakurri ondoren, jende horrek eta bertze anitzek lehen bezain deseroso jarraitzen dute, Bilduko buruek komunikatua alde gutietatik laudatu arren. ■

ASTE HONETAKO

zozketak



Bilboko Kafe Antzokia

Bazkaria
bi lagunentzat

Done Bikendi, 2
Bilbo BIZKAIA

www.kafeantzokia.com

1



Jorge Oteiza Fundazio Museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

De la Cuesta, 7
Alzuza NAFARROA

www.museoteiza.org

2



Donostiako Aquariuma

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

3



Esait

5 kamiseta tekniko berezi
opari

Oiartzun GIPUZKOA

www.esait.org

4



Kirolaz Badakit

2 mahai jolas opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2285. Argia)

ONDARRE LANDETxea

- Martin Garitaonandia Aristegi (Arrasate)

MUNDUKO IPUINAK

- Mari Jose Irizar Aranburu (Donostia)
- Josune Arandia Belaustegi (Lemoa)

BILBOKO KAFE ANTZOKIA

- Azkune Arrizabalaga Sendia (Azpeitia)

DONOSTIAKO AQUARIUMA

- Iñaki Iturain Azpiroz (Orio)
- Jesus Ondarra Erdozia (Iruñea)
- Sabin Etxaburu Arrizabalaga (Ondarroa)
- Esteban Etxeberria Urreaga (Hernani)

ARTIUM Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

- Ibon Barrenetxea Olasolo (Bilbo)
- Andres Alberdi Gorostiaga (Elgoibar)
- Ederne Zuazabeitia Olabe (Gasteiz)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astekari honetan iragarri ditugun zozketetan parte hartzeko aukera, abuztuaren 25 arte luzatuko dugu, udako oporraldia dela eta. Eskerak internet bidez bakarrik egin ahalko dituzue: gunea@argia.com posta elektronikora mezu bat bidaliz edo www.argia.com/gunea kanalaren bitartez.

XABIER LETE GOGOAN

KANTALDIAK

ANTTON VALVERDE
PIER PAUL BERZAITZ
ERRAMUN MARTIKORENA
AMAIA ZUBIRIA
PETTI
JOXAN ARTZE

Abuztuaren 11n
ARANTZAZUKO SANTUTEGIAN
19:00etan

Antolatzailea:



Donostiako Musika Hamabostaldia
Quintena Musical de San Sebastián

arantzazuGaur
FORALDEAN BIRANTZATUTAKO FORUMATIA

Babeslea:



MONDRAGON
Babeslea
Musika Hamabostaldia
Quintena Musical de San Sebastián

Sarrerak salgai: Musika Hamabostaldiko bulegoa
Oñatiko turismo bulegoa

ANTTON VALVERDE
PIER PAUL BERZAITZ
AMAIA ZUBIRIA
TXOMIN ARTOLA
JABIER MUGURUZA
XABIER EUZKITZE
PETTI

Abuztuaren 6an
HONDARRIBIKO
GIPUZKOA PLAZAN
22:30etan

Antolatzailea:

